



2026
2027



IMAJI NATZEN al duzu?



Lema
2026/2027

HAUR HEZKUNTZA/
LEHEN HEZKUNTZAKO
LEHEN ZIKLOA



IRAILA: Irudikatu dezakezu... izan daitekeen guztia? Dena aurrean, orria zuri.



Irudikatu dezakezu... pentsatzen duzun guztia, orain amesten duzun guztia, lortu daitekeela? Bada, irailak aukera hori ematen digu. Iraila gure aurrean zabaltzen den ate bat da, barruan dagoen guztia aurkitzeko. Orri zuri bat bezalakoa da; nahi dugun bezala erabil dezakegu. Irudimena astindu eta artelan bat marraztu, sentitzen dugun guztia idatzi, paperezko hegazkin bat egin, edo bururatzen zaigun beste edozer. Irailak hutsik dugun motxila hartu eta egunez egun bizitzaz betetzeko aukera ematen baitigu. Ikasturte honetan amesten ditugun eta Jainkoak guran erein dituen gauza guztiez. Irudikatu dezakezu zer izan daitekeen... ilusioa eta maitasuna ipintzen baditugu egunero hasten dugun bide honetan?

Irailak 7

"Urtero, irailean, Jainkoak hasiera berria oparitzen digu: ametsez, irribarrez eta hazteko gogoz bete dezakegun motxila huts bat".

Baliabidea 1

Jesus,
ipini nire bihotzean laguntzeko maitasuna,
entzuteko pazientzia
eta partekatzeko poza.
Gure gela besteentzako argi izan dadila.
Amen.



Baliabidea 2

Ametsen motxila:

Hori da ikasturteko gure motxila. Hutsik dago, baina Jainkoak gauza politekin betetzea nahi du.

Joan objektuak ateratzen, eta azaldu:

- Bihotza → "Besteak asko maitatzeko".
- Arkatza → "Gauza berriak ikasteko".
- Gurutzea → "Jesus gurekin ibiltzen dela gogoratzeko".
- Borragoma → "Barkatu eta hutsetik hasteko".

"Jesus, lagundu iezadazu nire motxila maitasunez, pozez eta ikasteko gogoz betetzen. Ez dadila sekula zure konpainia falta izan. Amen".

Baliabidea 3

DENOK batera, ipuin hau irakurriko dugu. Irakasleak ere irakur dezake:

Samuel izeneko artzain bat bizi zen herritxo batean. Goizero, zelaira joaten zen artaldearekin. Ardiak zaintzen zituen, ur freskoa, larre berdea eta atsedenerako leku segurua eduki zezaten ziurtatzen zuen. Samuelek ardi guztiak ezagutzen zituen, bakoitza bere izenarekin, eta ardiek konfiantzaz jarraitzen zioten. Arratsalde batean, ardi bat falta zela ohartu zen Samuel. Txuri zen, artaldeko txikiena eta bihurriena.

Basora joan zen korrika, eta ez zuen itzulbidea aurkitzen. Samuelek gainerako ardiak utzi zituen, eta, zalantzarik egin gabe, makila hartu eta Txuriren abiatu zen. Zuhaitz artean ibili zen, ibai bat zeharkatu zuen eta muinoetan gora joan zen, deika: 'Txuri! Txuri! Non zaude?'. Nahiz eta nekatuta zegoen eta iluntzen hasi zen, bazekien Txurik bere premia zeukala.

Azkenean, Samuelek 'bee' ahul bat entzun zuen zuhaixken artean. Soinua zetorren lekura korrika joan eta Txuri aurkitu zuen adarren artean harrapatuta. Tentu handiz, askatu eta lepoan hartu zuen. Samuel herrira itzuli zenean, bizilagunek galdetu zioten zergatik arriskatu zuen hainbeste ardi bakar batengatik. Hark, orduan: 'Ardi bakoitza garrantzitsua da niretzat. Ardi bat galtzen bada, bueltan ekartzeko beharrezkoa den edozer egingo dut'.

Gau horretan, Samueli otu zitzaion Jainkoaren maitasuna artzain on baten maitasuna bezalakoa dela. 'Jainkoak ez gaitu inoiz abandonatzen. Urrundu edo galtzen bagara, Hark beti bilatzen gaitu pazientziaz, eta bere maitasunera itzularazten gaitu'. Eta, hala, Zuriñek Samuelek fidatzen ikasi zuen, eta herriko haurrek ikasi zuten ezen, artzainak ardiak zaintzen dituen bezala, Jainkoak beti zaintzen gaituela maitasun amaigabearekin.

Baliabidea 4

Jesus laguna da

- Eskatu eroso eseri eta begiak ixteko.
- Esan, ahots leunez: "Irudikatu Jesus datorrela eta estu-estu besarkatzen zaituela. Eta esaten dizula: 'Zurekin nago beti'. Zer esango zenioke zuk?".
- Eman segundo batzuk, isiltasunean, pentsatu dezaten.
- Amaitzeko, esan elkarrekin: "Eskerrik asko, Jesus, hainbeste maite nauzulako. Nirekin egu-nero egotea nahi dut".

Irailak 14

"Ausartu zaitetz ezinezkoa denarekin amets egitera, zeren, Jainkoarengan uste osoa duzunean, ametsak bide bihurtzen baitira, eta bide horiek uste duzuna baino urrutiago eramaten zaituzte".

Baliabidea 1

Jarraian, abesti bat entzungo dugu (dantzatu ere egin daiteke).



Diego Torres – Color esperanza:

https://www.youtube.com/watch?v=Nb1VOQRs-Vs&list=RDNb1VOQRs-Vs&start_radio=1

"Saber que se puede, querer que se pueda, quitarse los miedos, sacarlos afuera..."

Gogoeta:

Jainkoa gurekin dabil, eta gauza berriak egiten saiatzeko indarra ematen digu.

Baliabidea 2

Ipuin bat, hazitxo bat nola hazten den eta urtaroeekin nola aldatzen den kontatzen duena, landareen bizi zikloa eta zaindu zein errespetatzeko balioak irakasteko.

Bideoa: La semillita

<https://www.youtube.com/watch?v=QFJUIHOC-uY>

Baliabidea 3

"Egun bakoitza Jesusekin gauza berriak bizitzeko zabaltzen den ate bat da".

Irakurri berri dugun ipuinaren testua:

Bazen behin Leo izeneko mutil bat, koloretako ate bat aurkitu zuena eskolako jolastokian.

—Zer egongo da atzean? —galdetu zuen bere baitan.

Zabaldtu zuenean, barrez, besarkadaz eta jolasez beteriko lorategi bat ikusi zuen.

Ahots ezti batek esan zion:

—Goizero, honen moduko ate bat zabaltzen duzu, Leo. Jainkoak oparitzen dizun egun berria da.

—Eta zer egin behar dut? —galdetu zuen.

—Ibili pozez, partekatu eta ikasi. Gainerako guztia kolorez betetzen joango da.

Galdera:

Egun bakoitza ate berri bat da. Nola sartu nahi duzu gaur: pozez, txeraz, ikasteko gogoz?

Irailak 21

"Ez gara bakarrik ibiltzen: urrats partekatu bakoitzak, maitasun keinu bakoitzak, abentura bihurtzen du ikasturte hau, eta Jainkoa gure ondoan dabil".

Baliabidea 1

"Eskerrik asko egun berri honengatik"

Jesus Jauna,
mila esker oparitu didazun egun berri honengatik.
Eskerrik asko eskolagatik, lagunengatik eta familiagatik.
Lagundu iezadazu bihotza zabalik edukitzen,
gauza berriak ikasten,
asko maitatzen eta amore ez ematen.
Gaur, irribarrez, ahaleginez eta pozez
bete nahi dut motxila.
Zatoz nire ondora, Jesus,
hastera doan bide honetan.
Amen

Baliabidea 2

"Ahaleginez eta pertseberantziaz, motelenek ere beren helburuak erdiets ditzaketela erakusten duen istorio bat, adiskideen laguntza eta babesa baldin badaukate".

<https://www.youtube.com/watch?v=8TAGVUYJw1o>

Baliabidea 3

"Irribarre egiten dugunean, eguna argiz betetzen dela ematen du. Irribarra besteei ematen diegun opari bat ere izan daiteke".

Otoitza:

*Jesus, eskerrik asko egun berri honengatik.
Nire irribarra lagunentzako argi izatea nahi dut.
Tristura dagoen lekuan, nik poza jartzea,
eta haserrea dagoen lekuan, bakea.
Amen*

Keinua:

Denek elkarri begiratu eta irribarra oparituko diote eguna hasi baino lehen.

Irailak 28

"Egunez egun, maitasun lan txikiz betetzen dugu gure orri zuria. Azkenean, Jainkoak gurekin bizitzaz beteriko istorio bat margotu duela ikusiko dugu".

Baliabidea 1

"Egun bakoitzean, Jainkoak zerbait polita marraztera gonbidatzen nau".

Egun bakoitzean, besteak zoriontsu egiten dituen zerbait "marraztu" dezakegu gure ekintzekin: irribarre bat, hitz atsegin bat, laguntza.

Keinua:

Haur bakoitzak gaur egin duen edo egin nahi duen zerbait polita marraztuko du.

Baliabidea 2

Gogoeta:

Goizero, eguna nola bizi nahi dugun erabakitzeak aukera berria da.

"Zer egingo duzu gaur?" galderak pentsatzera gonbidatzen gaitu, hasi aurretik: irribarre gehiago egingo dut? Norbaiti lagunduko diot? Zerbait berria ikasiko dut?

*Jainkoak eguna oparitzen digu mihise zuri baten modura
eta, gure ekintzekin, hitzekin eta keinuekin,
maitasun apurtxo bat marrazten goaz mihisean.*



Baliabidea 3

Leemos todos juntos la siguiente Otoitza:

Otoitza:

*"Jesus, eskerrik asko egun berri honengatik.
Lagundu iezadazu gauza onak pentsatzen,
txeraz hitz egiten
eta bihotza maitasunez betetzen.
Egon nire ondoan eskolan,
lagunekin eta familiakoekin
gaur ongia egin ahal izan dezadan
eta zure argia besteei eraman".*

Irakasleak, amaitzeko: ***"Zerbait ona egiten dugunean, txikia izanik ere, norbaiten eguna askoz politago bihur daiteke".***

URRIA: Irudikatu dezakezu... inor bakarrik ez ibiltzea?



Zure presentzia eta zure bizitza aldea da. Zure eguneroko ekintzek, soilenek, norbaiten bizitza argizta dezakete. Ez gutxietsi zeure burua. Zu besteentzako itxaropena izan baitzaitzake. Etsipena dagoen lekuetan, argia izan zaitezke aurrera egiteko bide baten bila da biltzanentzat. Zeren zu, zure bizitzaren ereduarekin, bakarrik dagoenarentzako bidea zara. Jainkoak besteentzako BIZITZA gisa amestu zaitu. Ez zara kasualitatea.. Misio batekin sortua izan zinen. Munduko Argia izatea. Tresna izatea. Jainkoaren eskuak zara munduan.

Urriak 5

"Jainkoak elkarrekin ibiltzeko egin gintuen. Irribarre bat partekatzen duzunean, inor bakarrik ez sentitzea eragiten duzu".

Baliabidea 1

"Leoren argi txikia"

Egun batean, motxilan linterna bat daramala ohartu den haur bat da Leo. Linternak ez du pilarik, ordea. Eta Leok pentsatzen du, orduan, "ez duela ezertarako balio". Gero, domina bat galdu duen adiskide batekin topo egin du; triste dago. Leok gordeta zituen pila batzuekin piztu du linterna, eta lagunari esan dio: "Begira, nahiz eta linternatxo hau besterik ez daukadan, nirekin domina berriro ikusiko dugu. Zurekin nago, ez zaude bakarrik".

Lagunak irribarre egin du. Eta Leok ikasi du haren "linterna" (keinua, presentzia) garrantzitsua izan dela.

Gogoeta: "Nik ere linterna izan nahi dut gaur norbaitentzat".

- Zer egin zuen Leok?
- Zergatik izan zen haren keinua garrantzitsua, nahiz eta linterna txikia izan?

Baliabidea 2

Itxaropena birsortzeari buruzko istorio inspiratzaile bat, esanahiz beteriko lorategi batean.

Bideoak: El jardín de la Esperanza

https://www.youtube.com/watch?v=_ytXguiNc3k

Baliabidea 3

Jarraian, irudiak proiektatu eta gogoeta laburra egingo dugu PERTSONEN ALBOAN EGOTEA-REN garrantziari buruz.



Urriak 12

"Zure eskuek lagundu dezakete; zure hitzek, adore eman; zure argiak, norbaiten eguna alaitu".

Baliabidea 1

Barneko argia

Jesus, eskerrik asko egun berri honengatik.

Lagundu iezadazu ikusten gauza onak egin ditzakedala, nahiz eta txikiak izan.

Irribarre bakoitzarekin, hitz atsegin bakoitzarekin, adiskide bati laguntza ematen diozun bakoitzean... norbait zoriontsu eta lagundua senti daiteke.

Amen.

Galdera

Zer ekintza txiki egin dezaket gaur, norbait zoriontsu sentitzeko?

Baliabidea 2

- à Elkarrekin ibiltzea eta laguntzea gauza erraza da.
- à Zerk eragiten dit irribarrea? Norekin gozatzen dut? Norekin pasatzen dut ongi?

Gogoeta: Irribarre bakoitzak bere garrantzia izateari balioa emango diogu.

Keinua (hautazkoa): hurrek irribarre bat marraztu edo margotuko dute.

Baliabidea 3

"Eskuen horma irudia".

- Haur bakoitzak bere eskua marraztuko du paperean.
- Denak batera itsats daitezke, kate bat osatzeko. Izenburu hau izango du: "Inor ez da bakarrik ibiltzen".
- Testu hau irakurriko dugu:



"Gaur, eskerrak ematen ditugu bakarrik ibiltzen ez garelako.

Elkarrekin goazenean, bidea politagoa eta seguruagoa da.

Norbait ondoan izateak —lagun bat, anai-arreba bat, ikaskide bat—

irribarre egiten, ikasten eta ausartak izaten laguntzen digu.

Maria eta Jesus bezala, norbait gure alboan dagoela ibili nahi dugu beti,

elkar zainduz eta alaitasuna goazen lekura goazela eramanez.

Gaur lagun onak izan gaitezen, eta sekula ez inor bakarrik utzi".

Baliabidea 4

Otoitz labur hau irakurriko dugu, elkarrekin edo irakasleari entzunda:

Jesus, mila esker adiskideengatik.

Ez daitezela inoiz nire irribarreak falta izan,

inor bakarrik egon ez dadin.

Amen.

Keinua: Nahi duenak eman diezaiola besarkada bat lagunari bati.

Urriak 19

"Lagun izateak besteei zure alboan ibiltzen uztea da, nahiz eta bidea zaila izan".

Baliabidea 1

Ipuin hau irakurriko dugu:

Bazen behin Lia izeneko izar txiki-txiki bat.

Liak uste zuen ez zuela besteek bezainbeste dir-dir egiten.

—Nire argia oso txikia da —esaten zuen.

Gau batean, negarrez ikusi zuen beste izar bat.

—Galdu egin naiz —esan zion izarrak—. Ez dakit nola itzuli etxera.

Liak zalantza egin zuen... Eta nire argia nahikoa ez bada?

Baina, arnasa sakon hartuta, hurbildu eta esan zion.

—Nire alboan ibil zaitezke. Nik lagunduko dizut.

Eta zerbait zoragarria gertatu zen: Liaren argia handitzen hasi zen.

Zenbat eta hein handiagoan argiztatu izar galdua, berari ere distira handiagoa zerion.

Etxera iritsitakoan, izarrak Lia besarkatu zuen:

—Eskerrik asko nire argia izateagatik.

Orduraz geroztik, Lia ulertu zuen ez duela axola zure argia txikia bada... Beste batzuk argiztatzen dituzunean, beti handitzen da. Gaurko otoitzean ohartu gara guretzat ere mesedegarria dela besteentzako argi izatea. Beste batzuk argiztatuz gu ere hazten gara.

Baliabidea 2

"Nire eskuak argiztatzen du".

Jarraibideak

1. Marratu haurren eskua kartulina horian.

2. Barruan, itsatsi esaldi hau (aldeztur aurretik egina):

"Nire eskuak argiztatzen du... (partekatzen, laguntzen, besarkatzen, laguntzen) dudanean".

3. Apaindu puntutxo zuriekin, "argi izpiak" balira bezala.

Horma irudian jartzeko esaldia: "Zure eskuek munduak dir-dir egitea eragiten dute".

Baliabidea 3

Otoitza

Jesus, inor bakarrik ez ibiltzea nahi duzu zuk.

Gaur nire eskuek laguntzea eragin ezazu,

nire begiek txeraz begiratzea

eta nire eskuek poza ematea.

Lagunentzako argia izan nahi dut,

zu niretzat argia zaren bezala.

Amen.

Urriak 26

"Egiten duzun gauza on bakoitzak Jainkoaren maitasuna erakusten du. Zu munduarentzat argia izan zaitezke!"

Baliabidea 1

Ikusi argazkia hau, eta gero erantzun galderari.

Galderak:

- Zer ikusten duzu?
- Zergatik ematen diote eskua elkarri?
- Zer gertatuko da batek eskua askatzen badu?



Baliabidea 2

Ikasgelan ipintzeko esaldiak, denen artean koloreztatu ditzaketenak.

- "Irribarre bat argia da".
- "Laguntzeak argiztatzen du".
- "Zure presentziak inor bakarrik ez ibiltzea eragiten du".
- "Jainkoak distiratzeko sortu zaitu".

Keinua: Elkarrekin koloreztatzeaz gain, idatzi, komentatu eta ikasgelan zehar ipin ditzakegu, gurekin egon daitezen.

Baliabidea 3

"Gure bihotza piztuko dugu".

Lehenik, oso keinu erraz bat egingo dugu:

1. **Burua ukitu eta hau esango dugu:** "Jauna, argiztatu nire pentsamendua..."

(Hartara, gauza onak pentsatzeko eskatzen dugu).

2. **Ahoa ukitu eta hau esango dugu:** "Argiztatu nire hitzak..."

(Hartara, txeraz hitz egiteko eskatzen dugu).

3. **Bihotza ukitu eta hau esango dugu:** "Argiztatu nire bihotza..."

(Hartara, gehiago maitatu eta laguntzeko eskatzen dugu).

Keinua: Ukitu burua, ahora eta bihotza.

Testua:

"Jauna, argiztatu nire pentsamendua..."

argiztatu nire hitzak...

argiztatu nire bihotza...

argia izateko gaur".

Galdera: Galdera: Ukitu duzun zer atal aukeratuko zenuke?

AZAROA: Irudikatu dezakezu... denek ahotsa izatea?



Ahotsa da sentimenduak, emozioak, bizipenak, pozak eta kezak adierazteko erabiltzen duzun tresna. Irudikatu dezakezu ezin hitz egitea? Edo, nahiz eta hitz egin, esan behar duzuna inork ez entzutea? Hil honetan, beldurrik gabe entzuten den ahots bat irudikatuko dugu, isildua izan gabe ekarpenak egin ditzakeen ahots bat, besteek entzungor egin gabe elkarriketan aritzen den ahots bat. Zubiak eraikitzen dituen ahots bat, askotariko begiradak batzen dituen eta dibertsitateak banatu ez baizik eta aberasten duela gogorarazten diguna. Pertsona oro askatasunez eta duintasunez mintzatu daitekeen mundu bat irudikatzea; hori da gizarte bidezkoago eta humanoago bat lortzeko lehen urratsa. Izan gaitezen ahotsik ez dutenen ahotsa.

Entzuten ez badizute, ez isildu, jarraitu, esan ozenki! Asko duzu esateko.

1. ASTEA, AZAROAK 2:

Irudikatu dezakezu gutako bakoitza pozez bizitzen ahalegintzen den aste bat? Besteak errespetaturik eta ontasun keinu txikiak partekatuz, gure eskola bakez eta maitasunez beteriko leku bihurtzeko.

Baliabidea 1:

OTOITZA (bakearen hazia). Irakasleak ozenki irakurriko du, eta keinuak egin daitezke otoitzaren mezuekin batera:

Jesus Jauna, tristura dagoen lekuan itxaropena ereiten duen maitasun hazia izan nahi dut gaur.

Irudikatu dezakezu, Jauna, gure keinu bakoitza zure ontasunaren isla izatea...?

Erakutsi iezadazu irribarre egiten, baita eguna goibeltzen denean ere,

eskua ematen, trukean ezer espero gabe,

lagunekin eta bidean topatzen ditudan guztiekin partekatzen.

Nire hitz bakoitza bakearen zubi bat izatea,

nire ekintzek poza sorraraztea bihotzetan,

eta zure maitasun amaigabea begirada bakoitzean islatzea.

Irudikatu dezakezu, Jaunak, denok maitasuna ereiten dugun mundu bat...?

Lagundu iezadazu errealitate bihurtzen, gaur hasita, nigan hasita.

Amen.

Baliabidea 2:

Bideoa: "Jainkoaren maitasuna zirkulu bat bezalakoa da: inoiz ez da bukatzen".

<https://www.youtube.com/watch?v=4Hvf5bFFF6A>

Jarduera: Jarri biribilean eta errepikatu: "Jainkoaren maitasunak ez du amaierarik".

Baliabidea 3:

IPUIN hau irakurriko dugu, eta egon adi, gero galdera batzuei erantzungo diegulako gure artean hitz egin eta otoitza aberasteko:

Bazen behin Mikel izeneko haur bat, oso bihotz berezia zeukana.

Ez zen besteena bezalako bihotza... Mikelenak lorategi txiki bat zirudien.

Zerbait polita esaten zuen aldiro —adibidez, "eskerrik asko", "maite zaitut" edo "egun on"—, koloretako loreak sortzen zitzaizkion bihotzean.

Haserretu, oihu egin edo besteei min ematen zien zerbait esaten zuenean, ordea, arantza bat ateratzen zen, ziztatu eta lorategia goibeltzen ziona.

Egun batean, Mikel jabetu zen bihotza lore eder batzuez beteta zegoela, baina arantza ugarriz ere bai.

Hala, Jesusekin hitz egitea erabaki zuen.

Ahots eztiz esan zion:

—Jesus, lorategi polita eduki nahi dut, baina ez dakit nola.

Jesusek irribarre egin eta erantzun zion:

—Mikel, zure hitz eta keinu bakoitza haziak dira. Maitasuna ereiten baduzu, loreak sortuko dira; haserrea edo tristura ereiten badituzu, arantzak haziko dira. Zaindu ongi zure lorategia, hartatik aterako da-eta zure bihotzeko edertasuna.

Orduz geroztik, Mikel esaten zuen hitz bakoitza eta egiten zuen ekintza bakoitza zaintzen hasi zen.

Norbait erortzen zenean, laguntzera joaten zen lasterka; norbait triste ikusten zuenean, irribarre bat oparitzen zion.

Eta, pixkanaka, hain lore ederrez bete zitzaion lorategia, denek harengandik hurbil egon nahi zuten...

Mikelen bihotzari maitasuna, barkamena eta poza zerizkiolako.

Ipuinari buruzko galderak:

- **Irudikatu dezakezu** zure bihotza lorategi bat izatea? Zer lore egongo lirateke?
- Zer gauza polit esan ditzakezu, zure bihotzean loreak sortzeko?
- **Irudikatu dezakezu** zure hitzak haziak izatea? Zer hazi erein nahiko zenituzke gaur?
- Zer gertatzen da gauza itsusiak esaten ditugunean edo asko haserretzen garenean?
- **Irudikatu dezakezu** denok maitasunez hitz egitea? Nolakoa izango litzateke mundua?
- Zer egin dezakezu, zure bihotzeko lorategia egunero zaintzeko?
- **Irudikatu dezakezu** Jesus zure lorategiari begira egotea? Zer gustatuko litzaioke ikustea, zure ustez?

Baliabidea 4:

OTOITZA (Irudikatu dezakezu...?) Begiak itxi eta hasiko gara.

Jesus Jauna,

irudikatu dezakezu munduko bihotz guztiak maitasunez beteriko lorategiak bezalakoa izatea?

Eta, haietan, hitz on bakoitzak lore bat sorraraztea

eta keinu atsegin bakoitzak eguzkiari dir-dir eginaraztea?

Erakutsiezadazu, Jesus, txerazko haziak ereiten tristura dagoen lekuan,

irribarreak oparitzen bakarrik sentitzen denari,

eta barkatzen, Zuk ni egunero barkatzen nauzun bezala.

Irudikatu dezakezu, Jauna, inor borrokatzen ez den mundu bat?

Denon pozez partekatu, lagundu eta elkar besarkatzen dugun mundu bat?

Uldertaraziezadazu esaten eta egiten dudan orok nire lorategia alda dezakeela, baita besteena ere.

Nire bihotza lur ona izatea nahi dut,

bakea, laguntasuna eta itxaropena loratuko diren lurra.

Irudikatu dezakezu, Jesus, denok gure bihotza maitasunez zaintzea...?

Zeinen polita izango litzatekeen mundua!

Lagunduiezadazu gaur hasten, nire hitzekin ereinez,

nire ekintzekin ureztatuz,

eta zure maitasuna nire baitan haz dadin utziz, gehiago egunez egun.

Amen.

Baliabidea 5:

IPUIN hau elkarrekin irakurriko dugu:

Bazen behin Lierni izeneko neska bat. Alaia zen, jakingura zeukan eta marraztea maite zuen. Egun batean, amonak oso arkatx polit bat oparitu zion: urre kolorekoa zen, izar bat zeukan puntan, eta eguzki argiarekin dir-dir egiten zuen.

—Arkatx magikoa da —esan zion amonak, irribarretsu.

Lierni zur eta lur geratu zen.

—Benetan da magikoa, amona?

—Bai, baina ez du bestee bezala marrazten. Arkatx honek gauza onak soilik marrazten ditu.

Liernik ez zuen ongi ulertu, baina emozionatuta zegoen.

Hurrengo egunean, eskolara eraman zuen. Jolasgaraian, bere lagun Mikeli merienda erori zitzaiola ikusi zuen. Lierni korrika joan zen eta jasotzen lagundu zion.

Orduan, arkatza distira egiten hasi zen, argi leun eta urre kolorekoaz.

—Bai bitxia! —pentsatu zuen—. Arkatzak distira egiten du!

Haurrentzako galderak:

- Zure iritziz, zer gertatu zen arkatzarekin, Liernik Mikeli lagundu zionean?
- Zer gauza on egin ditzakegu guk jolasgaraian?

Geroago, etxera itzuli zenean, Lierni anaia txikiarekin haserretu zen, koloreak nahasi zizkion-lako. Oihu pixka bat egin zuen... eta arkatzak dir-dir egiteari utzi zion.

Lierni triste jarri zen.

—Zergatik ez duzu distira egiten? —galdetu zion arkatzari.

Arkatzak ez zuen ezer esan, ordea.

Gau horretan, lo egin aurretik, gertatu zen guztiari buruz pentsatu zuen Liernik.

—Lagundu dudanean, dir-dir egin duzu... Baina, haserretu naizenean, itzali egin zara —xuxurlatu zuen—. Agian ez zara zu magikoa dena... Agian, magia nire baitan dago.

Hurrengo goizean, Liernik berriz saiatzea erabaki zuen. Anaia besarkatu eta esan zion:

—Barkatu oihu egiteagatik.

Eta, une horretan, arkatzak inoiz ez bezala distiratu zuen berriro!

Liernik irribarre egin zuen. Oso garrantzitsua den zerbait ikasi zuen:

Magia ez dago arkatzean... Magia bihotzean dago.

Eta Jesus maitatzen dugunean, munduak distiratzea eragiten dugu.

Haurrentzako galderak:

1. Zure aburuz, zergatik egiten zuen arkatzak dirdira?
2. Zer egin dezakegu guk gure bihotzak dir-dir egiteko?
3. Zer egin zuen Liernik, bere okerraz ohartu zenean?
4. Nola maita dezakegu Jesusek bezala?

2. ASTEA, AZAROAK 9:

Irudikatu dezakegu zer lortu dezakegun, egunero bihotza jartzen badugu besteei laguntzeko, irrikaz ikasteko eta ekintza bakoitza hazteko aukera izan dadin, fedez eta itxaropenez beteriko komunitate marista gisa?

Baliabidea 1:

Otoitz egingo dugu. Lehenago, musika instrumental lasaia jarriko dugu, eta Jesusen irudi bat proiektatua pantaila digitalean (halakorik badago), edo Bera agertzen den margolan bat.

Jesus,
irudikatu dezakezu Zuk maite gaituzun bezala denek elkar maitatzen duten mundu bat?
Inor bakarrik ez dagoen eta bihotz orok maitasunez eta pozez distiratzten duen mundu bat.
Eskerrik asko lagunengatik, familiakoengatik, maisu-maistrengatik
eta egunez egun hobea izaten erakusten didaten guztiengatik.
Lagundu iezadazu zure begiekin begiratzen,
zure bihotzarekin entzuten
eta laguntzen eta besarkatzen duten eskuak edukitzen.
Erakuts iezadazu irribarreak ereiten tristura dagoen lekuan,
partekatzen, beste batzuek ez daukatenean,
eta barkatzen, nahiz eta kostatu.
Nire bizitza zure maitasunaren isla txiki bat izatea,
eta nire pozarekin politago egin dezadala mundua.
Jesus,
argiz beteriko mundu bat irudikatu nahi dut zurekin,
keinu on bakoitza zure maitasun izpi bat den mundu bat.
Ez nadin sekula nekatu ongia egiteaz
eta une oro gogoratu dezadan:
egiazko magia Zuk bezala maitatzea da!
Amen.

Baliabidea 2:

IPUINA: Itzuli zen irribarrea

Ander txikia zerbait falta zitzaiola ohartu zen egun batean...
Irribarrea galdu zuen!
Leku guztietan bilatu zuen: motxilan, estutxean, eskolako mahaiaren azpian, jolastokian...
Baina ez zuen aurkitu. **NESKA-MUTILAK, bilatu motxilan, patriketan... Ea Anderren irribarrea** daukazu... **Ez? Hara!! Bilatzen jarraituko dugu, beraz...**
Irribarrea ez zen inon agertzen.
—Non sartu zara, irribarre? —galdetzen zuen, kezkatuta.
Bitartean, Anderren lagun Paulori arkatx guztiak erori zitzaizkion.
Ander berehala joan zen jasotzen laguntzera.
Eta une horretan bertan... zerbait magikoa gertatu zen!
Kilima sumatu zuen aurpegian eta, konturatu gabe, irribarrea itzuli zen.
Orduan, oso garrantzitsua den zerbait ulertu zuen:
Irribarrea ez zegoen inon ezkutatuta...
Bihotzaren baitan zegoen, eta besteengatik gauza onak egitean agertzen zen.
Egun horretatik aurrera, Anderrek irribarreak egunero oparitzea erabaki zuen:
koloreak partekatzen zituenean, besarkada bat ematen zuenean,
"eskerrik asko" edo "lagunduko dizut" esatean.
Eta ikusi zuen ezen, zenbat eta gehiago lagundu, irribarre gehiago agertzen zirela inguruan.

1. Zer egingo zenuke, irribarrea galdu duzula jabetuko bazina egun batean?
2. Triste zaudenean, zerk laguntzen dizu irribarrea berreskuratzen?
3. Lagun bat bakarrik edo triste ikusten baduzu, nola lortu dezakezu irribarre egitea?
4. Zer keinu on egin ditzakezu etxean edo eskolan besteak alaitzeko?
5. Nola zaindu dezakezu zure irribarrea egunero?
6. Zure iritziz, Jesusek irribarre egiten du besteei laguntzen diegunean?
7. Aste honetan, zer ekintza txiki egin dezakezu norbaiti irribarre bat oparitzeko?

Baliabidea 3:

BIDEOA, Color esperanza "Beti dago itxaropena, baita zerbait zaila denean ere".

<https://www.youtube.com/watch?v=2HayOxIAEwI>

Baliabidea 4:

DINAMIKA:

Helburua:

Haurrek ulertzea haietako bakoitza opari bat dela eta, irribarrearekin, maitasuna eta poza parteka ditzaketela.

Materialaak:

- Bilduta dagoen kutxa bat (koloretakoa edo apaingarria)
- Ispilutxo bat, kutxan sartzen dena

Garapena:

1. Hezitzaileak kutxa aurkeztu eta hau esango die haurrei:
—Begira kutxa hau... Zer egongo da barruan?
2. Haien ustez kutxan zer dagoen esatera gonbidatuko ditu haurrak. Gauza dibertigarriak edo sormenezkoak asma ditzakete.
3. Denek parte hartu dutenean, hezitzaileak kutxa ireki eta barruan ispilu bat dagoela erakutsiko die.
4. Eta azalpena emango du:
—Oparia zu zara! Zuetako bakoitza opari berezi bat da. Besteei poza eta maitasuna opari-tu diezaiekezue zuen irribarrearekin, hitzekin eta besarkadekin.
5. Jarduera indartzeko, beren burua ispiluan banaka ikusteko gonbit egin diezaieke, gero irribarre egin eta zerbait polita esateko.

Baliabidea 5 HAURREN ESKUBIDEAK

Jarduera: "Denok gara Jainkoaren seme-alabak"

Iraupena: 5-7 minutos

Garapena:

1. Hasteko, irakasleak hau esango du:

"Jainkoak gu guztiok sortu gintuen eta asko maite gaitu. Haur bakoitzak eskubideak ditu, **Jainkoaren seme-alabak** garelako".

2. Oinarrizko eskubideak aipatu eta keinu bat egingo du bakoitzerako:

- "Jolas egin eta zoriontsu izateko eskubidea daukat". → salto edo txalo egin
- "Zaindua eta maitatua izateko eskubidea daukat". → eskua bihotzean
- "Ikasteko eta Jainkoa ezagutzeko eskubidea daukat". → eskuak zerurantz altxatzea
- "Entzuna eta errespetatua izateko eskubidea daukat". → eskua belarrian jartzea, entzungo balute bezala

3. Aipatu bitartean, irakasleak hau gehitu dezake:

"Jainkoak beti maite gaitu eta besteak zaintzen laguntzen digu".

Itxiera, otoitz labur batekin

"Jauna, eskerrik asko gu zaintzeagatik eta eskubideak emateagatik.

Lagundu iezaguzu haur guztiak errespetatzen eta maitatzen.

Amen".

Azken gogoeta:

Haurrekin solasean, aipatu haien irribarreak eta keinu atseginak beste batzuen eguna alaitu dezaketela, eta azpimarratu pertsona bakoitzak balio paregabea eta berezia daukala.

ASTEA, AZAROAK 16: Irudikatu

ikaskideak zainduko balitu eta besteentzat argia izateko konpromisoarekin biziko balitz, Jesusek irakatsi zigun bezala?

Baliabidea 1:

BIDEOA: Como María quiero ser <https://www.youtube.com/watch?v=KYOVP32aD4U>

"Bihotz apalarekin bizi nahi dut, eta Jainkoarengan uste osoa izan, Andre Mariak bezalaxe".

Baliabidea 2:

Otoitza: Otoitz egingo dugu elkarrekin. "Irribarreen mundu bat".

Jesus, eskerrik asko etxeagatik,
lagunengatik eta eguneroko ogiagatik.
Lagundu iezadazu maitasuna ematen etengabe,
eta alaitasunez irribarre egiten.
Nire besarkadak opariak izan daitezela,
nire hitzak, argiz beteak.
Egin ditzadan besteak zoriontsu,
Zuk erakusten diguzun bezala, Jesus.
Amen.

Baliabidea 3:

DINAMIKA:

Helburua:

Irudimena sustatzea eta, Jesusek bezala, gauza onak egin ditzakegula erakustea.

Materialaak:

Haurrak biribilean esertzeko espazioa.

Garapena:

Haurrak biribilean eseriko dira eta hezitzaileak hau esango du:

—Irudikatu dezakezu denek elkarri laguntzen dioten eta irribarre egiten duten mundu bat?

Haur bakoitzak irudikatzen duenari buruzko ideia azkar bat esan dezake; adibidez:

"Denak elkarrekin jolasten diren mundu bat irudikatzen dut".

"Inork negar egiten ez duen mundu bat irudikatzen dut".

Denei entzun eta gero, hezitzaileak hau esango du:

—Bai polita! Zuetako bakoitzak bere keinuekin eta irribarrearekin lagundu dezake mundu hori egon dadin. Jesusek bezala, mundua leku zoriontsu bat izatea lortu dezakegu.

Aldaera dibertigarri bat:

Eskatu hurrei altxatzeko eta keinu bat egiteko beren ideia irudikatze aldera; esate baterako, besarkatzea, salto egitea edo txalo egitea. Hala, hein handiagoan parte hartuko dute eta bisualagoa izango da.

Baliabidea 4:

Adi IPUIN honi:

Bazen behin Ane izeneko neska bat, gauza politak irudikatzea maite zuena.

Egun batean hau esan zuen:

—Irudikatu dezakezu denak lagunak diren mundu bat?

—Nik bai! —erantzun zion bere adiskide Landerrek—.

—Irudikatu dezakezu denek elkarri laguntzen dioten eta irribarre egiten duten mundu bat?

—Nik ere bai! —esan zuen Anek.

Orduan, Anek eta Landerrek keinu txikiak egitea erabaki zuten, irudikatu zuten mundu hori benetakoa izan zedin:

besarkadak eman zituzten, jostailuak partekatu zituzten eta ikaskideei lagundu zieten jolasgaraian.

Eta, pixkanaka, haien mundua alaiago eta zoriontsuago bihurtu zen.

Anek irribarre egin eta esan zuen:

—Irudikatu dezakezu? Ekintza on bakoitzarekin, irudikatu dugun mundua egiazko bihurtzen da!

Haurrentzako galdera laburrak

- Zer irudikatu zuen Anek?
- Nork lagundu zion Aneri mundu polit bat irudikatzen?
- Zer egin zuten Anek eta Landerrek haien mundua zoriontsua izateko?
- Irudikatu dezakezu denak lagunak diren mundu bat?
- Zer egin dezakezu, zure mundua zoriontsua izateko?

Baliabidea 5:

OTOITZ labur hau elkarrekin esango dugu:

Jauna, zenbaitetan haserretzen naiz edo barkatzea kostatzen zait.

Erakutsiezadazu bihotzez aritzen.

Ez nadin amorruarekin geratu, zure maitasunarekin baizik.

Amen.

ASTEA, AZAROAK 23:

Irudikatu dezakezu nolakoa izango litzatekeen gure eskola, egunez egun ahaleginduko bagina adeitsuak izaten, arretaz entzuten, trukean ezer espero gabe laguntzen eta ikaskideen lorpen bakoitza elkarrekin ospatzen?

Baliabidea 1:

Bideoa: *Guapa* ipuina. Ipuin honetan, sorgin baten istorioa kontatzen da. Denek bera atsegitea nahi du, bere itxura aldatuz horretarako; azkenean ikasten du, ordea, **norbera den bezalakoa onartzea dela garrantzitsuena**.

https://youtu.be/zF9hclyg_Zs?si=xCeggodmJnQBstgw

Baliabidea 2:

Abestia: *Huracán*

"A veces nuestro corazón se mueve mucho, como un huracán. Nos enfadamos, nos asustamos o estamos tristes... pero Dios está con nosotros incluso cuando todo se mueve."

Baliabidea 3:

OTOITZ egingo dugu elkarrekin:

Jesus, eskerrik asko azaro honengatik,
familiakoengatik, adiskideengatik eta ematen didazun guztiagatik.

Irudikatu dezakezu maitasunez eta pozez beteriko mundu bat?

Lagundu iezadazu ona izaten,
beharra dutenei laguntzen
eta irribarreak egunero partekatzen.

Nire hitzak eta keinuak opariak izan daitezela,
eta zoriontasuna egunero ereiteko gai izan nadin,
Zuk erakutsi zenigun bezala.

Amen.

Baliabidea 4:

DINAMIKA: "Mundu bat irudikatzen Jesusekin"

Helburua:

Haurrek ulertzea ezen, Jesusen ereduari jarraituz, mundua adeitsuago eta zoriontsuago bihur dezaketela beren keinu eta ekintzekin.

Garapena:

Hasteko, hezitzaileak hau esango du:

—Irudikatu dezakezu denek ongia egin eta elkarri laguntzen dioten mundu bat, Jesusek erakutsi zigun bezala?

Haur bakoitzak mundu horri buruzko ideia labur bat partekatuko du; adibidez:

"Denek besteak zaintzen dituzten mundu bat irudikatzen dut".

"Denek otoitz eta irribarre egiten duten mundu bat irudikatzen dut".

Hezitzaileak haiekin batera hausnartuko du:

—Bai polita! Zuetako bakoitzak mundu hori egon dadin lagundu dezake, Jesusek erakutsi ziguna eginez: besteak maitatzea, partekatzea eta irribarre egitea.

Amaitzeko, haurrek bihotzean jar ditzakete eskuak, eta elkarrekin esan:

—Jesus, lagundu iezadazu nire mundua zoriontsuago egiten maitasunarekin eta irribarreekin.

Baliabidea 5:

Abestia: "Pozik gaudenean edo zerbaitek kezkatzen gaituenean, Jesus gurekin dago. Berak zaintzen gaitu, gure ondoan dago eta egunero aurrera jarraitzeko itxaropena ematen digu".

https://youtu.be/nJ_DsUltWd0

ABENDUA: Irudikatu dezakezu... Jainkoa zugar jaiotzea?



Irudikatu dezakezu abendua ez izatea hotza eta argiak soilik, baizik eta erritmoa moteltzeko aukera bat?

Abendua hil bat baino gehiago da: atari bat da. Oraindik ezagutzen ez dugun zerbaitera zabaltzen den atea; gehiago egiteko ez baizik eta gehiago izateko eskatzen digun denbora bat.

Irudikatu dezakezu horrela biziko bagenu, prestaketa isil baten modura? Ez izatea opariak eta apainketa soilik, baizik eta topaketa baterako prestatzen diren bihotzak. Topaketarako. Abendualdian pizten dugun kandela oro hazten den itxaropen bat da, argi bihurtzen den itxaronaldi bat. Irudikatu dezakezu Norbaiten zain egotea benetan, ez soilik zerbaiten zain? Beharbada, zentzua hori bera da: zarata ez, xuxurla baizik. Lasterketan ez, bidean baizik.

Irudikatu dezakezu aurten desberdina izatea? Prestatu zeure burua benetan, begiak eta bihotza zabal-zabalik.

1. ASTEA, AZAROAK 30-ABENDUAK 1:

Irudikatu dezakezu Jesusen etorrerako denon pozez eta itxaropenez prestatzen garen aste bat, bihotza zabalduz, pazientzia izanez eta ingurukoekin maitasuna partekatuz, Hark erakutsi zigun bezala?

Baliabidea 1:

IPUINA: Abendualdiaren esnaera. Istorio honetan kontatzen da nola prestatu zen Elene Gabonetarako, abendualdian. Pozez itxaroten ikasi zuen, baita bihotzeko argia pizten ere, maitasun, laguntza eta ontasunezko keinu txikiak eginez. Bitartean, haren etxea argiz eta alaitasunez bete zen abendualdiko koroako kandela bakoitzarekin.

Bazen behin Elene izeneko neska bat.

Egun batean, amonak esan zion:

—Gaur abendualdia hasiko da. Jesusen etorrerako prestatuko gara.

Elenek etxeari begiratu zion.

Lasai zegoen... lo balego bezala.

Orduan, kandelatxo bat piztu zuten.

Argiak dirdira egin zuen eta etxea alaitu zen.

Ondoren, koroa berde bat ipini zuten,

eta igandero kandela berri bat piztuko zutela agindu.

Amonak esan zuen:

—Bihotza ere prestatu behar dugu:

maitasunez, pozez, eta partekatuz.

Egunero, Elenek ona zen zerbait egiten zuen:

ordenatu, lagundu, irribarre egin.

Eta, pixkanaka, etxea esnatu zen,

eta Eleneren bihotza ere bai...

Eta Gabonak heldu ziren, argiz beterik!

Baliabidea 2:

OTOITZA. Erne, neska-mutilak, eguna hasteko prestatuko gara, eta zerbait esango diogu Jesusi...

“Jesus, presta ezazu nire bihotza zu pozez hartzeko. Bihur nazazu otzan zure ahotsaren aurrean, eta zure presentziari sentikor. Garbitu nire pentsamenduak, sendatu nire zauriak, indartu nire fedea eta berritu nire itxaropena. Zure Espirituak erakuts diezadala beldurrik

gabe fidatzen, neurririk gabe maitatzen eta zure borondatearen arabera ibiltzen, beti. Nire bizitza osoa samurtasunez bizi zaren leku bat izan dadila, zure bakeak eta argiak naizen guztia eraldatzen duten leku bat. Lagundu iezadazu apaltasunez itxaroten zuri, egoera guztietan zu ezagutzen, eta bidean jartzen duzun pertsona bakoitzarengan zu zerbitzatzen. Egon nirekin gaur eta beti, eta ez utzi sekula Zugandik aldentzen.

Amen”.

Baliabidea 3:

BIDEOA: “Bideo honetan esaten digute Jesus gure alboan dagoela beti, gure bihotza pozez eta itxaropenez betetzen. Adore ematen digu atseginak izateko, besteei laguntzeko eta Harengan uste osoa izateko, egunez egun haren argiarekin eta maitasunarekin distiratu ahal izateko”.

https://youtu.be/-h_Ms940p78?si=MLQTziAmUmrUBM6Y

Baliabidea 4:

Ipuin honetan kontatzen da ezen, Jesus jaio aurretik, Mariak Gabriel aingeruaren bisita jaso zuela eta “bai” esan ziola Jainkoaren borondateari. Istorioan erakusten da, Jainkoak eskatzen diguna maitasunez eta konfiantzaz onartzen dugunean, zerbait zoragarria lora daitekeela gure bizitzan, Mariaren lorategiko lore zuria bezalaxe. Erakutsi hurrei konfiantzazko baietzaren, obediencia-aren eta Jainkoaren maitasunera irekita egotearen balioa.

IPUINA:

Maria eta baietzaren lorea

Kontatzen dutenez, Jesus jaio aurretik, Mariak lorategi txiki bat zaintzen zuen Nazareten. Loreak maite zituen, batez ere lore jakin bat: zuria zen, soila, eta zeruari begira zegoen beti. Egun batean, lorategia ureztatzen ari zela, Mariak ahots leun bat entzun zuen berari deika. Gabriel aingerua zen.

—Maria —esan zion—, Jainkoak oso berezia den zerbaitetarako hautatu zaitu. Bere Semearen ama izatea nahi du.

Mariak harridura eta poza nahasirik sentitu zituen. Ez zekien zehazki nola izango zen dena, baina ziurtasun handia zeukan bihotzean: Jainkoa nire alboan dago beti.

Lore zuriari begiratu, eta maitasunez beteriko baietza eman zuen:

—Gerta bekit zuk esan bezala.

Loreak inoiz ez bezala dir-dir egin zuela zirudien, eta, egun horrez geroztik, baietzaren lore esaten zitzaion. Sendo eta eder hazi zen, denoi gogorarazteko ezen, Jainkoaren maitasunari, ontasunari eta borondateari “bai” esaten diogunean, zoragarria den zerbait loratzen dela gure baitan.

Mezua: “Bai” maitasunez esaten dugunean, Jainkoak gauza ederrak egin ditzake gure bizitzan.

Baliabidea 5:

DINAMIKA: “Izarraren bidea”

Helburua:

Hurrei laguntzea abendualdia Jesusenganako bide baten gisara bizitzeko, ontasunezko keinu zehatzekin.

Iraupena: 15–20 min

Materiala:

Izar handi bat (urre koloreko kartulina edo kartulina horia)

Abendualdiko musika leuna

Garapena:

1) Prestaketa sinbolikoa

Izarra ikasleen aurrean jarri eta hau esango dugu:

"Izar honek Jesusenganaino gidatzen gaitu, izarrak Errege Magoak gidatu zituen bezala".
Kandela bat piztuko dugu (ezin bada, elektrikoa izan daiteke).

2) Gogoeta laburra

Hezitzaileak hau esango du:

"Jesus laster etorriko da. Hau Harenganako gure bidea da.
Egunero, urratsak egin ditzakegu, maitasun keinuak egiten baditugu".

3) Otoitz marista

Biribilean, eskutik helduta denok:

"Jesus, zure ondoan ibili nahi dugu abendualdian.
Lagundu iezaguzu gauza onak egiten, asko maitatzen
eta bihotza zure etorrerarako prestatzen.
Maria, Ama Ona, egon egunero gure alboan. Amen".

4) Ondorioa

Hezitzaileak hau esango du:

"Maitasunezko urrats bakoitzak gehiago hurreratzen gaitu Jesusengana. Bide hori denok
batera eraikiko dugu".

2. ASTEA, ABENDUAK 9:

Irudikatu dezakezu zer lortu dezakegun, gutako bakoitzak erabakiko balu erronkei ausar-
diaz aurre egitea, akatsetatik ikastea eta zailtasun bakoitza hazteko eta besteei laguntzeko
aukera bihurtzea?

Baliabidea 1:

OTOITZA. Irudikatu dezakezu Jesusen etorrerarako prestatzea? Bada, aurrera prestaketa la-
nekin. Otoitz eginez prestatuko gara, honela:

Jesus,
bihotza zure etorrerarako prestatzen ari gara.
Pozez itxaron nahi dizugu,
Andre Mariak bezala.
Lagundu iezaguzu argia izaten,
partekatzen,
laguntzen
eta besteak asko maitatzen.
Egunero egin dezagula zerbait polita,
Zugandik gertuxeago egoteko.
Jesus, zatoz gure bihotzera,
zatoz gure ikasgelara,
zatoz gure familietara.
Amen.

Baliabidea 2:

Bideoa: "Bideo honekin ikasiko dugu abendualdia dela Jesusen etorreraren zain pozik gau-
den garaia, kandelaz kandela itxaropenaren argia pizten dugun garaia, eta bihotza zabalt-
zen dugun garaia, haren maitasuna jaso eta besteekin partekatzeko".

<https://youtu.be/LY3ObN5EErc>

Baliabidea 3:

DINAMIKA: "Bihotza piztuko dugu".

Iraupena: 5-7 min

Helburua: Hurrei ulertzen laguntzea abendualdian barrutik prestatzen garela, maitasun keinuekin.

Materiala:

Kandela bat (benetakoa edo elektrikoa)

Bihotz formako txarteltxoak (haur bakoitzarentzat bat)

Arkatzak/margoak

Urratsak:

1. Bilera biribilean

Haurrak kandela itzaliaren inguruan eseriko dira.

Hezitzaileak hau esango du:

"Jesus laster etorriko da, eta bihotza Harentzat prestatu nahi dugu".

2. Hurrek marraztea

Hau marraztuko dute bihotz formako txartelean:

gaur egin dezaketen maitasun keinu bat

(lagundu, partekatu, irribarre egin...)

(Haur Hezkuntzan: marrazkia)

(Lehen Hezkuntzan: marrazkia + hitzak)

3. Pizte sinbolikoa

Kandela piztu eta hau esango dugu:

"Ongia egiten dugunean... argia pizten dugu munduan".

4. Bihotzak jartzea

Hurrek kandelaren inguruan jarriko dituzte beren bihotzak.

5. Otoitz laburra

Jesus, gure bihotza prestatu nahi dugu.

Lagundu iezaguzu maitatzen, laguntzen eta partekatzen.

Maria, Ama Ona, egon gure alboan.

Amen.

3. ASTEA, ABENDUAK 14:

Irudikatu dezakezu irribarre, hitz atsegin eta elkartasun keinu bakoitzak denok babestuak eta maitatuak sentiarazten gaituen leku bat, egiazko familia marista bat eraikitzeko?

Baliabidea 1:

Otoitza:

Hasiera:

Denok batera, eskuak elkarturik eta isiltasunean, hau esango dugu:

"Jauna, zatoz gure bihotzera".

Irakurgai laburra / pentsamendua (Haur Hezkuntzan, maistrak edo maisuak):

Gaur, abendualdiko kandela bat piztuko dugu.

Gidatzen gaituen argia Jesus dela oroitarazten digu.

Jesusek gurekin egon nahi du egunero.

Otoitza:

Jesus Jauna,
pozez itxaroten dizugu.

Lagundu iezaguzu besteekin onak izaten,
partekatzen eta lagunak zaintzen.

Zatoz laster gure bihotzera eta gure familiara.

Itxiera:

Eskerrik asko, Jesus, zure argiagatik.
Maite zaitugu eta zure zain gaude.
Amen.

Baliabidea 2:

Bideoa: "Bideo honetan, lehen Gabonen historia ikusiko dugu. Jesus aska batean sortu zen, Betleemen, eta haren etorrerak argiz, maitasunez eta itxaropenez bete zituen pertsonen bihotzak. Familiakoekin eta alaitasunez ospatzera gonbidatzen gaitu".

<https://youtu.be/e6ITbGbodvg>

Baliabidea 3:

DINAMIKA: Bihotzeko oparia

Iraupena: 10-15 minutos

Helburua: Haurrek ulertzea Gabonetako egiazko oparia maitasuna eta alaitasuna oparitzea dela.

Materialaak:

Txartelak edo paper zati txikiak
Koloretako arkatzak
Kutxa apaindu edo saski bat

Hasiera: (2 min)

Bildu haurrak biribilean, eta azaldu hau:

"Gaur oso opari berezi bat egingo dugu, gure bihotzetik datorren opari bat, Jesusentzat eta besteentzat".

IPUINA laburra (3-4 min)

Kontatu labur Jesusen jaiotzaren historia:

"Jesus aska batean jaio zen eta erregeen opariak jaso zituen. Hala ere, oparirik handiena maitasuna izan zen. Guk ere maitasun opariak eman ditzakegu".

DINAMIKA (5-7 min)

Eman haur bakoitzari paper zatitxo bat eta koloretako arkatzak.

Eskatu zerbait polita marraztu edo idazteko, Gabonetan norbaiti eman diezaioketena; adibidez, lagun batentzako marrazki bat, hitz atsegin bat, besarkada bat.

Amaitzen dutenean, paper zatitxoak Bihotzeko kutxan ipiniko dituzte, hots, kutxan edo saskian.

Irakurri ozenki adibide batzuk (haurrek nahiago badute, izenik esan gabe).

Itxiera con Otoitza (2 min)

Eskuak elkartu eta esango dute denek:

"Jesus, eskerrik asko zure maitasunagatik. Lagundu iezaguzu maitasuna eta txera guztiekin partekatzen. Amen".

Hautazkoa: gabon-kanta errazen bat abestea; esate baterako, Olentzero joan zaigu edo *Horrera, Mari Domingi*.

Baliabidea 4:

IPUINA: "Jesusen jaiotza".

Bazen behin, aspaldi-aspaldi, Betleem izeneko herri bat.

Han, Maria izeneko gazte bat bizi zen, oso haurtxo berezi baten zain. Haurtxo hori Jesus izango zen, munduko argia.

Mariak eta Josef senarrak Betleemera bidaiatu behar izan zuten, erregeak denak errolda batean erregistratzea nahi zuelako.

Heldu zirenean, etxe guztiak beteta zeuden; ez zegoen haientzako lekurik.

Azkenean, ukuilu txiki bat aurkitu zuten: animaliak eta aska bat zeuden han. Hor, lasaitasunaren erdian eta maitasunez inguratua, Jesus jaio zen.

Mariak askan ipini eta samurtasunez estali zuen.

Gau horretan, larreetan, artzain batzuk ardiak zaintzen ari ziren. Bat-batean, aingeru batek esan zien:

"Ez beldurtu! Gaur jaio da Jesus, Salbatzailea. Oihaletan bildua eta askan etzana aurkituko duzue.

Artzainak lasterka joan ziren haurtxoa ikustea, eta pozez bete ziren.

Urruti-urrutiko errege batzuk ere heldu ziren izar dirdaitsu bati jarraituz, eta urrea, intsentsua eta mirra opari.

Han zeuden guztiak maitasunez eta bakez bete ziren.

Jesus mundura iritsia zen, maitatzen, partekatzen eta besteak zaintzen irakasteko.

Eta horrela, Gabon bakoitzean, Jesusen jaiotza pozez ospatzen dugu, gure lagun eta munduko argiaren jaiotza.

Baliabidea 5:

CANCIÓN: "Bideo honetan ikasiko dugu Gabonak ez direla jai hutsa. Aitzitik, Jesusen jaiotzaren ospakizuna da, argiz, maitasunez eta itxaropenez betetzera etorri baitzen, gure familiako eta adiskide guztiekin partekatzeko".

<https://youtu.be/DiSQ3pKsH0I>

URTARRILA: Irudikatu dezakezu... besteentzako bakea izatea?



Hil honetan Bakearen Eguna ospatuko dugu. Eta, maristak garen aldetik, ezin dugu gure onena jartzeko aukera galdu, mundu hobea eta bidezkoagoa eraikitzeko. Gure mundua sufritzen ari da: gerrak, gosea, bidegabekeriak... Gure esku dago mundu baketsu bat eratzeko aukera, hurkoa maitatzeko aukera, Jainkoak agindu zigun bezala. «Nik ezin dut gerra bat gelditu», pentsatuko duzu agian. Aitzitik, adiskide bati lagundu diezaiokezu, entzuten dakien ikaskidea izan zaitezke, edota anai-arreba ulerkorra, taldeko jokalaria, beharra duenarentzat hor dagoen norbait, edota gaizki-ulertu batean bitartekotza egiten duen norbait... Horrekin guztiarekin, besteek zugaron bakea ikusiko dute.

1. ASTEA, URTARRILAK 11:

Irudikatu dezakezu irribarre bat partekatzea egunero guztiekin?

Adiskideei laguntzen badiegu eta eskola zaintzen badugu, aste bakoitza alaiagoa izango da eta argiz beteagoa egongo da.

Jesusek gidatu gaitzala ematen dugun pauso bakoitzean.

Baliabidea 1:

Otoitza. 2027a hasiko dugu, elkarrekin otoitz eginez...

Jesus Jauna,

eskerrik asko jaio izanagatik eta zure argia eta maitasuna ekarri izanagatik.

Eskerrik asko familiagatik, lagunengatik eta partekatzen ditugun alaitasun une guztiengatik.

Lagundu iezaguzu zure jaiotza beti gogoratzen eta egunero maitasunez, ontasunez eta bakez bizitzen.

Mundura ekarri zenuen argiak gure bihotzean eta ekintzetan dirdira egiten jarraitu dezala.

Garai berri honetan gure ondoan egoteko eskatzen dizugu,

eta partekatzen, barkatzen eta besteak zaintzen erakusteko, Zuk irakatsi zenigun bezalaxe.

Amen.

Baliabidea 2:

GOGOETA... Opariak, opariak, opariak... Guk baditugu besteentzako opariak?

Gabonek gogorarazten digute Jainkoak oparirik handiena eman zigula: bere Seme Jesus, maitatzen, partekatzen eta pozez bizitzen irakastera etorri zena.

Errege Magoek erakusten digute bihotza zabalik bilatu behar dugula Jesus, gure onena emanez: gure hitzak, keinuak eta ekintzak.

Gabonak jada igaro diren honetan, eta Errege Magoek opariak ekarri eta gero, galdera hauek egin ditzakegu:

Zer opari eman diezazkieket nik besteei bihotzez?

Nola jarraitu dezaket maitasuna, ontasuna eta elkartasuna erakusten egunero?

Ez dira opari materialak, bihotzeko opariak baizik: irribarre bat, hitz atsegin bat, besarkada bat, laguntza keinu bat.

Egunero, Gabonak gure bihotzean bizitzeko aukera bat da, Jesusen argia inguruko guztiekin partekatuz.

Ez ditugu besteentzako opariak, ez: JAINKOAREN OPARIAK GARA BESTEENTZAT.

Baliabidea 3:

"Ikusiko dugun bideoak gogora ekarriko digu Jesusek munduan argia izatera gonbidatzen gaituela, gure maitasuna eta alaitasuna guztiekin partekatzen, eta ongia egitera, beste batzuek ere guran ikus dezaten Jainkoaren ontasuna".*

<https://youtu.be/Gp24FyEFT1c>

Baliabidea 4:**ERREGE... MAGOEN IPUINA.**

Aspaldian, Jesus Betleemen jaio baino lehen, Ekialdeko gizon jakintsu batzuek oso izar distiratsu bat ikusi zuten zeruan. Errege Magoak ziren: Meltxor, Gaspar eta Baltasar.

Izarrak gidatzen zituen, eta oso haurtxo berezi bat jaio zela jakin zuten, mundura maitasuna eta bakea ekarriko zituen haurtxo bat.

Errege Magoek bidaia luzea hasi zuten izarraren argiari jarraika, mendi eta basamortuetan zehar. Oso opari bereziak eramane zituzten Jesusentzat:

Urrea, Bera errege bat zela erakusten zuena.

Intsentsua, Jainkoa ohoratzeko.

Mirra, lurrin baliotsu bat, Jesusen bizitzak xede garrantzitsu bat izango zuela gogorarazteko. Betleemera heldu zirenean, haurtxoa ikusi zuten Maria eta Josefekin.

Belauniko jarri, haurra gurtu eta opariak eskaini zizkioten, maitasun eta poz handiz.

Errege Magoek irakasten digute bihotza zabalik bilatu behar dugula Jesus, eta oparirik garrantzitsuenak ez direla gauza materialak beti, baizik eta maitasun, errespetu eta ontasun keinuak. **Gu geu gara oparia.**

- Nola jakin zuten Errege Magoek Jesus jaioa zela?
- Zer opari eman zizkioten Errege Magoek Jesus haurtxoari?
- Zergatik da garrantzitsua opariak maitasunez ematea, ez gauza materialak soilik?

Baliabidea 5:**OTOITZA. Elkarrekin, Jesusi otoi egingo diogu egunaren hasieran:**

Jesus Jauna,

eskerrik asko zure maitasun amaigabeagatik eta bizitza eman izanagatik.

Eskerrik asko familiagatik, adiskideengatik, maisu-maistrengatik eta zaintzen gaituen eta ondoan daukagun pertsona bakoitzagatik.

Eskerrik asko alaitasun une bakoitzagatik, irribarre bakoitzagatik eta maitatuak sentitzen laguntzen digun besarkada bakoitzagatik.

Lagundu iezaguzu egun bakoitza ontasunez, errespetuz eta pazientziaz bizitzen.

Erakutsi iezaguzu solidarioak izaten, arretaz entzuten, barkatzen eta daukaguna besteekin partekatzen.

Gauden tokian gaudela, zure argia eramateko gauza izan gaitzezela, maitasun eta alaitasun eredu izan, eta bakea erein dezagula etxean, eskolan eta komunitatean. Jauna, egon gure alboan, amets zein erronketan.

Eman iezaguzu zailtasunei aurre egiteko ausardia, erabaki onak hartzeko jakinduria eta besteei lagundu eta zerbitzatzeko bihotz irekia.

Gure ekintza bakoitzak zure maitasuna islatu dezala, eta beti gogoratu dezagula zu zarela gure gida, gure indarra eta gure itxaropena.

Geratu beti gurekin, Jauna, eta irakatsi iezaguzu fedez, pozez eta esker onez bizitzen gure bizitzako egun bakoitza.

Amen.

2. ASTEA, URTARRILAK 18:

Irudikatu dezakezu gutako bakoitza atsegin eta guztiekin errespetuzkoa izaten ahalegintzen den aste bat, gure hitzek eta ekintzek poza eta txera transmititzen duten aste bat, eta ontasun keinu bakoitzak gure eskola eta komunitatea argiz eta maitasunez beteriko leku bat izatea dakarren aste bat?

Baliabidea 1:

IPUINA: Hasiera berria: urtarrila Jesusekin.

Urtarrila iritsi da, eta, urtarrilarekin batera, aukeraz beteriko urte berri bat.

Haurrak goiz jaiki ziren, gogoan izanik zenbat egunez ikasi, jolas egin eta parteka dezaketen lagunekin.

Mariak eta Josefek kontatu zieten egun bakoitza Jainkoaren opari bat dela, eta urtarrila liburu garbi bat bezalakoa dela: han, gure istorioak maitasunez, pozez eta ekintza onez idatz ditzakegu.

"Promes berriak egin ditzakegu", esan zuen Josefek.

"Bai", erantzun zion Mariak, "besteekin onak izateko, etxean laguntzeko eta irribarreak partekatzeko promesak".

Haurrek Jesus eduki zuten gogoan, eta nola irakasten digun Berak atseginak izaten, besteak zaintzen eta barkatzen.

Urtarrileko egun guztietan, norbaitengatik gutxienez gauza on bat egingo zutela erabaki zuten, eta, hala, urtea argiz eta pozez beteko zuten.

Egun horretatik aurrera, urtarrila oso hil berezia izan zen:

amets egin, ikasi, lagundu eta Jesusen maitasunean hazteko hilabetea.

Baliabidea 2:

Bideoa: "Bideo honen bidez ikasiko dugu urte berri bakoitza aukera bat dela Jesusekin hazteko, bihotza Jainkoari irekitzeko, bizi izan duguna eskertzeko eta itxaropenez ibiltzeko, besteekin maitasuna eta ontasuna partekatuz".

<https://youtu.be/wVwM45xU7Vs>

Baliabidea 3:

DINAMIKA: "Irudikatu dezakezu...?".

Iraupena (otoitzaren ohiko tarte baina luzeago, baina merezi du): 10-15 minutos

Helburua: Irudimena, sormena eta balio maristak garatzea; esate baterako, errespetua, ontasuna eta elkartasuna.

Materialaak:

Txartelak edo paper zatitxoak

Koloretako arkatzak edo markatzaileak

Kutxa bat edo saski bat

Hasiera (2-3 min)

Bildu haurrak biribilean.

Azaldu:

"Gaur gauza politak eta posibleak irudikatuko ditugu gure mundurako, gure eskolarako eta gure familetarako. Irudikatzen dugun guztia lagungarria izan daiteke hobeak izateko eta besteei laguntzeko".

Garapena (5-7 min)

Haur bakoitzak txartel bat hartuko du eta irudikatu dezakeen zerbait marraztu edo idatziko du.

"Irudikatu dezakezu denok partekatzen dugun mundu bat?"

"Irudikatu dezakezu beharra duen norbaiti laguntzea?"

"Irudikatu dezakezu natura garbi eta eder egotea?"

Amaitzen dutenean, txartelak irudimenaren kutxan ipiniko dituzte.

Partekatzea (3-5 min)

Bideratzaileak edo haurrek berek txartel batzuk irakurriko dituzte ozenki.

Irudikatu dutena ekintza zehatzen bidez nola bihur daitekeen errealitate hausnartuko du-zue labur.

Itxiera (2 min)

Otoitz laburra:

"Jesus Jauna, eskerrik asko gure irudimenagatik eta ongia egiten irakasteagatik. Lagundu ie-zaguzu gure ideiak praktikan jartzen, mundua leku politagoa eta maitasunez beteagoa izan dadin. Amen".

Baliabidea 4:

IPUINA: "Irudikatu dezakezu urte berri bat Jesusekin?". **Egon adi, ipuinaren amaieran galde-ra batzuk egingo ditugulako... Nork erantzungo die?**

Urtarrila iritsi da, eta, urtarrilarekin batera, deskubritzeko dauden egunez beteriko urte berria.

Eskolako haurrak emozionatuta zeuden, eta galdetzen zuten:

"Irudikatu dezakezu zer gauza berri ikas ditzakegun aurten?"

"Irudikatu dezakezu nola lagundu diezaiekegun adiskideei eta familiakoei?"

Irakasleak gogorarazi zien, nahiz eta Gabonak jada igaro diren, Jesusek gurekin jarraitzen duela egunero, onak izaten, partekatzen eta besteak zaintzen irakatsiz.

Haurrak irudikatzen hasi ziren:

Irudikatu dezakezu triste dagoen norbaiti laguntzea?

Irudikatu dezakezu jostailuak lagun batekin partekatzea?

Irudikatu dezakezu natura eta animaliak zaintzea?

Irudikatu dezakezu zerbait berria ikastea eta besteei irakastea?

Haur bakoitzak urtean zehar egitea irudikatu zuen zerbait marraztu zuen paper zati batean.

Ondoren, ametsen kutxan jarri zituzten, egun bakoitza Gabonak bihotzean urte osoan bizitzeko aukera bat dela gogoratzeko.

Horrela, haurrek deskubritu zuten gauza onak irudikatzea eta praktikan jartzea Jesusengana hurbiltzeko eta mundua leku zoriontsuago eta maitasunez beteago bihurtzeko modu bat dela.

Gogoeta egiteko galderak, ipuina eta gero:

- Zer gauza on irudikatu zituzten haurrek urte honetarako?
- Nola jar dezakegu praktikan irudikatzen duguna?
- Zergatik da garrantzitsua Jesus gurekin egotea egunero, baita Gabonak igarota ere?
- Bihotzeko zer opari eman diezaiekegu besteei aurten?

3. ASTEA, URTARRILAK 25:

Irudikatu dezakezu nola aldatuko litzatekeen gure mundua, norbaiti laguntzea, daukaguna partekatzea eta ingurukoei arretaz entzutea erabakitzen badugu, une bakoitza ikasi, hazi eta Jesusengana zein gure Ama Onarengana hurbiltzeko aukera izan dadin?

Baliabidea 1:

GOGOETA-OTOITZA... Elkarrekin irudikatuko dugu...

Urte berria hasi da, eta bizi dugun egun bakoitza Jainkoaren opari bat da.

Galdera hauek egin ditzakegu: "Irudikatu dezakezu zer gauza on egin ditzakegun gaur?".

Irudikatu dezakegu:

- Behar gaituztenei laguntzea.
- Irribarreak eta hitz atseginak partekatzea.
- Natura eta animaliak zaintzea.
- Bakarrik edo triste sentitzen direnen lagun izatea.

Ongia egin eta gure ingurua alaitasunez eta maitasunez betetzeko aukera bat da egun bakoitza.

Garrantzitsuen ez dira keinu handiak, baizik eta txeraz eta eskuzabaltasunez egiten ditugun ekintza txikiak.

Gauza onak irudikatu eta ondoren praktikan jartzen baditugu, egun bakoitza guretzako eta besteentzako une berezi bihurtu dezakegu.

Jesus gure alboan egon dadila eta argi, poz eta ontasun izaten irakats diezagula, egiten dugun orotan.

Baliabidea 2:

ABESTIA: "Bideo honetan erakutsiko digute sekula bakarrik uzten ez gaituen lagun bat dela Jesus, gure ondoan ibili nahi duela egunero, eta alaitasunez, ontasunez eta fedez nola bizi erakutsi nahi digula".

<https://youtu.be/2kgL73wC-64>

Baliabidea 3:

Otoitza Mariarekin. Mariaren irudi bat proiektatuko dugu edo Ama Onaren margolan bat hartuko dugu. Gero, otoitz hau esango dugu hurrekin batera:

Santa Maria, Ama Ona,

eskerrik asko gu zaindu eta gidatzeagatik, zure seme-alabak zaintzen dituzun moduan.

Eskerrik asko zure maitasun samurragatik eta zure ontasun eta apaltasun ereduagatik.

Zu bezala onak izaten irakasteko eskatzen dizugu,

ingurukoei laguntzen, arretaz entzuten eta alaitasunez partekatzen.

Gure bihotza ausarta izan dadila ongia egiteko,

eta gure bizitza besteekiko errespetuz, txeraz eta esker onez beteta egon dadila.

Lagundu iezaguzu Jainkoarengan uste osoa izaten beti, eta egun bakoitza itxaropenez bizitzeko,

Zu gure ondoan zaudela eta gidatzen gaituzula gogoratuta, Ama maitekor gisa.

Zure zerbitzu eta samurtasun eredu jarraitzeko gauza izan gaituzela,

eta beti argi eta alaitasun izan gure familian, gure eskolan eta gure komunitatean.

Santa Maria, Ama Ona,
gera zaitez beti gurekin,
babestu gaitzazu eta egon zaitez gure alboan amets zein erronketan.

Erakutsiezaguzu Jainkoari eta gure balioei leialak izaten, eta zuk irakatsi bezala bizitzen:
maitasunez, apaltasunez eta eskuzabaltasunez.
Amen.

Baliabidea 4:

ABESTIA: "Ikusiko dugun bideoak zerbait deskubritzera gonbidatuko gaitu: hain zuzen, Jesussek maite gaituela, gure alboan dagoela eta egunero pozez, ontasunez eta itxaropenez bizitzeko adore ematen digula deskubritzera".

<https://youtu.be/kaoO4z01BnU>

Baliabidea 5:

DINAMIKA: IRUDIKATU

Iraupena: 5 minutos

Materiala: ezer ez

1. Haurrak eseri edo zutik geratuko dira, biribilean.

2. Irakasleak azalpena emango du:

"Gaur **bakearen bola ikusezina** sortuko dugu, batuk besteari eman diezaiokeguna. Norbaitek bakearen bola jasotzen duenean, lasaitasuna, poza eta txera sentitzen ditu bihotzean".

3. Eskuekin keinua eginda, bola ikusezin bat baleukate bezala jokatu dute, eta hurrez haur "ematen" joango dira.

4. Bola jasotzen duen haur bakoitzak hitz atsegin bat edo bake desio bat esango du ozenki. Adibidez:

- "Maitasuna".
- "Lagunak".
- "Irribarreak".
- "Laguntza".

5. Denek bakearen bola jaso dutenean, dinamika keinu bera eginez itxiko dugu. Eskuak bihotzean jarrita, hau esango dute elkarrekin:

"Bakea gure bihotzean dago".

Aldaera bizkor-bizkorra (2-3 minutu)

- Irakasleak irudizko pilota bat jaurtiko dio haur bati, hau esaten diola:
- "Bakea ematen dizut".
- Haurrak, irudizko pilota jasotakoan, bere bake hitza esango du.
- Horrela jarraitu behar da guztiek parte hartu duten arte.

OTSAILA: Irudikatu dezakezu... eraldatzen duen maitasun bat?



Irudikatu dezakezu zure bizitza barrutik eraldatzen duen eta bihotzak irekitzeko gai den maitasun bat?

Inposatzen ez den maitasuna da, askatzen gaituena eta zentzua itzultzen diguna, pertsona bakoitzaren barnean berriz sinesteko gaitasuna berriro sortzea eragiten duen maitasuna. Sentimendu horrek gure baitatik irtetera bultzatzen gaitu, besteengana hurbiltzeko, eta barkamenaren indar bihurtzen da, adiskidetze energia eta bakearen hazi. Begiradak aldatu, konfiantza piztu eta senidetasuna eraikitzen du. Kristoren maitasun horrek itxaropenaren zeinu bizi izateko dei egiten digu, eguneroko keinuen bidez.

1. ASTEA / OTSAILAK 1:

Baliabidea 1:

Aste honetan, eliza osoak Jesusen argia ospatzen du. Irudikatu dezakezu eraldatzen duen maitasun bat?

Hori da Jesusek dakarkigun maitasuna, munduko Argia, gure bihotzak argiztatzen dituen eta besteentzat argi izatera gonbidatzen gaituena.

- Jesus haurtxoa zela oraindik, gurasoek tenplura eraman zuten, eta, han, nahiz eta itxura batean beste haurtxo bat zen, Simon eta Ana ohartu ziren bera zela, aurretik ikusi gabe, bihotza alaitasun, maitasun eta itxaropenez beteta zeramatelako.



Kaixo, Jesus.

Nigan jarri duzun argia ikus dadin utzi nahi dut nik ere.

Irakatsiezadazu maitatzen eta argia emango dut.


Jakin dezadala poza kutsatzen.

Dir-dir egin dezadala ahalegintzen naizenean.

Jolasten naizenean, familiakoekin

eta eskolan.

Eskerrik asko, Jesus.



Baliabidea 2:

Otoitz egingo dugu ipuin honekin... Erne, pertsonaia bat aterako da-eta pantailan.

LUMAREN INPUINAK pentsaraziko digu nola izan gaitezkeen gutako bakoitza beste norbaitentzako ARGIA, ikasturteko beste une batzuetan jada pentsatu dugun bezala. Berriz ekingo diogu, oso garrantzitsua baita zu bezalako ikasle marista batentzat. Lumak bezala —bere dirdirak itxaropena eman zezakeela jakin zuen izartxo—, guk ere mundua eralda dezakegu keinu soilekin: Irudikatu dezakezu? Irribarre bat? Besarkada bat? Gure denbora partekatzea? Etab.

Bazen behin, zeruan oso goian, Luma zeritzon izartxo bat. Gauero, zeruko izar guztiak zerua bere argi distiratsurekin argiztatzeko prestatzen ziren. Lumak ez zuen dir-dir egin nahi, ordea. —Zertarako dirdira egin, beste izar asko baldin badaude? —esaten zuen ahapeka, laino baten atzean ezkutaturik.

Gauero, lagunak zeruan dantzan ikusten zituen, argizko bideak egiten zituztela. Lumak hasperen besterik ez zuen egiten, isilean, argia itzalita.

Egun batean, Ilargia hurbildu zitzaion eta hau esan zion:

—Badakizu zer, Luma? Izar bakar batek galduta dagoen bidaiari bat gidatu dezake. Zenbaitetan, argitxo batek itxaropen handia eman dezake.

Luma pentsatzen egon zen luzaroan. Gau horretan bertan, hontz txiki bat hegan ari zela habiaren bila, galdu egin zen laino trinkoaren eraginez. Zerua ilun zegoen eta ez zekien nondik hegan egin.

Orduan, tentu handiz, Lumak bere argia piztu zuen. Ez zen oso handia, ezta oso sendoa ere, baina bihotz osoarekin dirdiratzten zuen. Hontzak behetik ikusi zuen. Segidan, irribarre egin eta etxeraino egin zuen hegan, argiari jarraituz.

Egun horretatik aurrera, Lumak ez zuen berriz zalantzan jarri bere dirdira. Argi guztiek axola dutela ikasi zuen, txikiak izanik ere.

Baliabidea 3:

ABESTIA: BRILLA. PEQUE ALABA

JESUSEK, MUNDUKO ARGIAK, gu ere argizatzen duen ARGIA izatea nahi du, jende ARGITSUA, besarkatzen, irribarre egiten eta MAITATZEN duena.

Ausartu dir-dir egitera eta ingurukoen bihotzak maitasunez betetzera, **bideoan esaten diguten bezala!**

https://youtu.be/xSRX3pU2LSQ?si=_JN5_4PzM0-f5DDw

2. ASTEA / OTSAILAK 8:

Baliabidea 1:

Ez dago mundua Jesusek bezala eraldatzen duen Maitasunik. Aste honetan, aldaketa garaia hasiko dugu: GARIZUMA. Baina, zer da hori?

BIDEOA: GARIZUMA

Bideo honetan, gure lagun pinguinoak saiatuko dira azaltzen... Bukatutakoan, esan zer gus-tatu zaizun bideoan eta zeri buruz hitz egin duten pinguinoek.

<https://youtu.be/ocS9zNNA8Ac?si=6roH8AzAr-NnGa98>

Baliabidea 2: Hausterre Egunerako

OTOITZA:



Egun on, Jesus.

Gaur oso garai berezia hasiko da.

Gure kopetako hausterrezko gurutzeak gogorarazten digu Zuk asko maite gaituzula eta beti zaudela gurekin.

Gurutzeak esaten digu maitatzen, laguntzen, barkatzen eta ongia egiten ikasi nahi dugula.

Jesus, lagundu iezaguzu bide horretan,

Zuk bezala maitatzen jakiteko etxean, eskolan eta adiskideekin.

Eskerrik asko, Jesus.

El Gigante Egoísta



Ipuin bat entzungo dugu.

IPUINA: ERRALDOI BEREKOIA.

Gure lagun pinguinoek esan ziguten Garizuma aldaketa garaia dela. Irudikatu dezakezu nola eralda daitekeen dena gure inguruan, zu aldatzen bazara? Zertan aldatzea izango litzateke onena?

Ikusi zer gertatu zitzaion gure istorioaren protagonistari eta nola bete zen dena bizitzaz.

Arratsaldero, eskolatik irtetean, haurrak

Erraldoiaren lorategira jolas egitera joaten ziren. Lorategi handia eta ederra zen, loreen zuhaixkekin eta soropil berde eta leunez estalita. Hara-hona, izarrak bezain lore argitsuak zabaltzen ziren belarren artean, eta hamabi abrikotondo zeuden: udan, lore arrosa eta nakar delikatuz estaltzen ziren, eta, udazkena iristean, fruitu leun eta gozoz kargatzen ziren. Txoriak zuhaitzetako adarretan luzatzen ziren, eta hain eztiki kantatzen zuten, non hurrek jolas egiteari uzten zioten txioak entzuteko.

—Zeinen zoriontsuak garen hemen! —esaten zioten elkarri.

Baina, egun batean, Erraldoia itzuli zen. Lagun zuen Kornixeko Ogroari bisita egitera joana zen, eta han eman zituen azken zazpi urteak. Denbora horretan zehar, esan beharreko guztia esana zioten elkarri, eta haien solasaldiak mugatuak ziren. Beraz, Erraldoiak bere etxetarrera itzultzeko gogoia sentitu zuen. Iritsi zenean, haurrak lorategian jolasten ikusi zituen lehenik.

—Zer egiten duzue hemen? —esan zuen, ahots burrunbatsuz.

Hurrek lasterka ihes egin zuten, itsumustuan.

—Lorategi hau nirea da. Neure lorategia da —esan zuen Erraldoiak—. Denek ulertu behar dute hori, eta ez diot inori utziko hona sartzen jolas egitera.

Eta, berehala, oso horma garai bat eraiki zuen, inor ez sartzeko.

Haur koitaduak jolasteko lekuri gabe geratu ziren.

—Zeinen zoriontsuak ginen han! —esaten zioten elkarri.

Udaberria itzuli zenean, eskualde osoa txoriz eta lorez bete zen. Hala ere, Erraldoi Berekoia-
ren lorategian neguak irauten zuen oraindik. Haurrik ez zegoenez, txoriek ez zuten kantatzen eta zuhaitzei loratzea ahaztu zitzaien. Behin soilik, lore eder-eder bat agertu zen belarren artean. Aitzitik, kartela ikusi bezain pronto, oso triste sentitu zen hurrengatik, hain triste ezen lur azpira itzuli eta lo geratu zen berriro.

Han, elurra eta antzigarra soilik zeuden gustura.

Udaberriak lorategi hori ahaztu zuen. Elurak bere mantu zuri handiz estali zuen lurra, eta antzigarrak zilarrez estali zituen zuhaitzak.

—Ez dut ulertzen zergatik ari den udaberria hainbeste atzeratzen hemen —esaten zuen Erraldoi Berekoia, leihora atera eta lorategia grisez eta zuriz estalita ikusten zuenean—. Eguraldia laster aldatzea espero dut.

Baina udaberria ez zen inoiz iritsi. Eta uda ere ez. Udazkenak urre koloreko fruituak eman zituen lorategi guztietan; Erraldoiaren lorategiari ez zion fruiturik eman, ordea.

Horrela, Erraldoiaren lorategia neguan murgilduta geratu zen beti, eta iparraldeko haizea, txingorra, antzigarra eta elurra dantzan zebiltzan zuhaitzen artean, goibel.

Goiz batean, Erraldoia ohean zegoen oraindik, eta kanpotik musika eder-ederra iristen zela entzun zuen. Hain leun iristen zitzaion belarrietara, non elfoen erregea hortik igarotzen ari zela pentsatu baitzuen.

—Primeran! Badirudi udaberria iritsi dela azkenean —esan zuen Erraldoiak, eta ohetik salto egin zuen leihora korrika hurbiltzeko.

Eta zer ikusi zuen?

Begien aurrean, ikuskizun zoragarria zeukan. Haurrak hormako arrakala batetik sartuak ziren, eta zuhaitzetara igota zeuden. Haur bat zegoen zuhaitz bakoitzean, eta zuhaitzak poz-pezik zeuden haiekin zeudelako berriro. Horregatik, lorez bete ziren eta adarrak emeki kulunkatzen zituzten burutxoan gainean. Txoriek haurren inguruan egiten zuten hegan, kantatu bitartean, eta txikiak barrez ari ziren. Egiaz, oso ikuskizun ederra zen.

—Igo hona, txiki! —esan zuen zuhaitz batek, adarrak ahalik eta gehien makurtuz. Haurra txikiegia zen, hala ere.

Erraldoiak bihotza urtzen sentitu zuen.

—Zeinen neurekoa izan naizen! —egin zuen oihu—. Orain badakit zergatik ez zuen udaberriak honaino etorri nahi. Haur txiki hori zuhaitzera igo eta horma botako dut. Gaurtik aurrera, nire lorategia haurrentzako jolastoki izango da beti.

Zinez damutu zitzaion bere jokabidea.

Orduan, eskailera jaitsi, etxeko atea zuhur zabaldu eta lorategira sartu zen. Haurrek ikusi zutenean, aldiz, izutu egin ziren, ihes egin zuten eta lorategia negu betean geratu zen berriro. Zokorik urruneneko txikitxoak soilik ez zuen ihes egin, begiak malkoz bete-beteta zitueto eta, beraz, Erraldoia agertzen ikusi ez zuelako. Hala, Erraldoia atzetik hurbildu zitzaion, eskuen artean adeitsu hartu eta zuhaitzera igo zuen. Zuhaitza loratu egin zen bat-batean, txoriak adarretan pausatuta kantatzera joan ziren eta haurrak, Erraldoiaren lepoa besarkatu ostean, musu eman zion. Beste haurrek ikusi zutenean Erraldoia jada ez zela gaiztoa, korrika itzuli ziren, pozarren. Eta, haiekin batera, udaberria ere lorategira itzuli zen.

—Hemendik aurrera, lorategia zuentzat izango da, seme-alabak —esan zuen Erraldoiak. Eta sekulako aizkora hartuta, horma eraitsi zuen.

Eguerdian, jendea azokara zihoala, denek ikusi zuten Erraldoia hurrekin jolasean ari zela inoiz ez bezalako lorategirik ederrenean.

Han aritu ziren jolasean egun osoa eta, gaua iritsi zenean, haurrak Erraldoiari agur esatera joan ziren.

Zuen ustez, Erraldoia aldatu da istorioaren hasieratik amaierara bitartean? Eta lorategia?

Besteak zoriontsu egiten dituen zerbaitek alda dezakezu zuk?

Laguntzeko eskatuko diogu Jesusi, zer aldatu behar dugun jakiteko. Eta gurekin batera lanari ekiteko ere eskatuko diogu.

3. ASTEA. Otsailak 15 (GARIZUMAKO LEHEN ASTEA).

Irudikatu dezakezu oso indartsu egiten gaituen maitasun handi-handi bat, mundua leku hobe bihurtzen laguntzeraino?

Jesusek zailtasunetan erakusten digu, eta hautatu behar duenean.

Nahiz eta goseak eta nekatuta zegoen, maitatzea, Jainkoarengan uste osoa izatea eta ongia egitea hautatu zuen.

Jesusek bazekien Jainkoa Berekin zegoela, eta, horregatik, bihotza bare eta indarrez betea zeukan.

Eta Jainkoarengan ustea dugunean, gure bihotza ere bakez, pozez eta zuzena dena egiteko gogoz betetzen da.



Baliabidea 1:

JESUS BASAMORTUAN.

Jesus 40 egun joan zen hara, Jainkoarekin hitz egiteko, isiltasunean egoteko eta bere bihotza prestatzeko.

Eguzkiak gogor jotzen du, eta Jesus goseak eta egarriak jota dago.

Haren bihotza askoz handiagoa da, aitzitik. MAITATZEN DU: Aita Jainkoa maite du, gu maite gaitu.

Leku horretan hainbat bide daude.

Batzuek hau esaten diote, adibidez:

"zuga soilik pentsatu behar duzu",

"gehiago lortu behar duzu",

"erraza dena aukeratu behar duzu".

Baina Jesusek ez zituen bide horiek hautatu.

Jesusek beti du konfiantza bere Aita Jainkoan, eta Jainkoak bihotzean esaten diona entzuten du.

Jesusek maitatzea hautatzen du,

konfiantza izatea,

zerbitzatzea.

Jesusek hori hautatzen duenean, bihotza indarrez eta bakez betetzen zaio. Pentsatu zer egingo duzun gaur eskolan, lagunekin eta etxean, eta jarri arreta une batez. Zer bide hautatu nahi duzu?

Jesusi ondo aukeratzen irakasteko eskatuko diogu.

Baliabidea 2:

ABESTIA: LA CUARESMA. UNAI QUIRÓS

Maria gure ondoan dago bide honetan. Beti dago gurekin! Pozez konfiantza izateko adore ematen digu, bere begirada eta maitasunarekin. **Ez denez bide erraza, baina bai ederra, hori guztia azalduko diguten bideo bat ikusiko dugu. Zer gustatzen zaizu bideoan? Gero komentatuko dugu...**

https://youtu.be/yU9Yo9bxgrk?si=IMtw_jm0cxms2OB9

Zer gustatu zaigun partekatuko dugu. Irudikatu dezakezu Garizuma zentzuarekin bizitzea, Mariarekin eta Jesusekin? Aitari eskatuko diogu. Berak lagunduko digu, ziur.

Baliabidea 3:

ABESTIA: MARÍA, MÍRAME.

Beste behin, Mariarekin otoitz egingo dugu, Garizuma garai honetan. Gustatuko zaizue, seguru... Irudikatu dezakezu, eskuak bularraldean jarrita, are neurri handiagoan sentitzea Maria gurekin otoitzean? Abestia eskuak bihotzean jarrita entzutera animatzen zaituztegu. **AURRERA!!**

<https://youtu.be/vLGIn-iqIOo?si=wr7odnqZC4LojocB>

4. ASTEA. Otsailak 22

Baliabidea 1:

Eta hazten jarraitzen dugu. Irudikatu dezakezu gero eta bihotz handiagoa izatea? Jainkoarengan ustea izateak indartsu eta ausart egiten zaitu. **Adi, abestiak esaten digu eta...**



ABESTIA: UN CORAZÓN MÁS GRANDE. UNAI QUIRÓS

https://youtu.be/DTx_rjDpJ4Q?si=F6B-MKgAj4vwFIKr_

Jada esan dugu: izan dezagun uste osoa Jainkoarengan, indartsuago eta ausartago egiten gaitu eta.

Baliabidea 2:

Presta zaitezke irribarreen ipuin bat entzuteko. Jesus ekarriko digute gogora, ziur...

- **IPUINA: IRRIBARREEN IPUINA** Irudia tamaina handian proiektu daiteke arbel digitalean, ahal izanez gero.

Egun horretan, Enara irakasleak erronka berria proposatu zien ikasleei: poza. Eta errekor baterako moduko erronka bat

zen. Pozaren "biltzaile" izendatu zituen, ea zer bururatzen zitzaien inguruko artean poza eragiteko. Nahiz eta denek gauza xarmagarriak egin zituzten, Kattalin Sinpatiak ahoa bete hortz utzi zituen denak.

Enara irakasleak eskaera hori egin eta egun batzuen buruan, Kattalin zaku handi bat lepoan agertu zen.

—Hemen ekarri dut egun hauetan bildutako poz guztia —esan zuen, irribarretsua.

Denak adi-adi zeuden, baina haurrak ez zuen zakuaren edukia erakutsi nahi izan. Horren ordez, kutxa txiki bat atera, bat-bateko argazkiak egiten dituen kamera bat hartu, eta kutxa maistrari eman zion.

—Ireki, Enara irakasle. Irakasleak poliki zabaldu zuen kutxa, eta barruan begiratu zuen. Irribarre zabala bat agertu zitzaion aurpegian. Une horretan, Kattalinekin argazkia atera zion. Gero, argazkia eta paper zati bat eman zizkion. Maistrak isiltasunean irakurri zuen papera eta, amaitu zuenean, zaku handia seinalatu zuen, sorpresa keinua eginez.

—Beraz, hori... —Bai! —eten zion haurrak, zakua ixten zuen korapiloa deseginez— Irribarre pilo bat dira!

Eta zakutik ehunka argazki erori ziren, askotariko irribarre ederren argazkiak.

Klasearen gainerakoan azaldu zuten nolatan bururatu zitzaion Kattalini jendea pixka bat alaitzeko kate bat hastea: kutxan argazki bat besterik ez zegoen, irribarre handi batekin; irekitzean, transmititzen zuen alaitasuna sentitzen zuten denek eta irribarre batekin erantzuten zuten, ia nahi gabe.

Kattalinekin argazki bat egiten zien bere irribarrearekin eta, papertxo bat ematen zien, beste pertsona batzuekin gauza bera egiteko eskatuz, eta argazkien kopia bat bidaltzeko bere etxeko helbidera. Eta egun zein hilabete horietan zehar, Kattalinen postontzia jende esker-tuaren irribarreen argazkiz bete zen behin eta berriz. Horrela, irribarre egitea bera denontzako opari bat dela ulertarazi zien.

Baliabidea 3:

Ongia egiten dugunean, eta erratzen dugunean, ez dugu inoiz ahaztu behar nola maite gaituen gure amak. Beti dago hor, eta harengana jo dezakegu ezein unetan. Beti dago gurekin. Askotan ez gara ohartzen, baina beste zenbaitetan bai. Ikusi zer gertatu zitzaion San Martzelinori.

Abesti batetik ateratako poesia eder bat da. Irakurriko dut eta denok errepikatuko dugu San Martzelinok Andre Mariari eskatzen ziona.

ACORDAOS: UNA LUZ EN LA NOCHE

<https://youtu.be/2DeXpAl6r4g?si=vrIkDJIveORNIWH>

Hitzak Julio Longaresen abesti batekoa da: Acordaos: una luz en la noche.

Un enfermo moribundo
En una aldea montañosa
La noche es ya muy cerrada
Nieva desde la mañana
Marcelino nunca duda
Cuando de ayudar se trata
Corre al lado del enfermo
Y pide ayuda a María
ACUERDATE VIRGEN MARÍA
QUE NUNCA SE OYÓ DECIR
DE NADIE QUE ACUDIÓ A TI
QUE HA QUEDADO SIN TU AYUDA
La tormenta se endurece
Frio, nieve, viento y niebla
El camino se ha borrado
Van dejándole las fuerzas
El aliento de la muerte silba
Entre la tormenta
ACUERDATE VIRGEN MARÍA
QUE NUNCA SE OYÓ DECIR
DE NADIE QUE ACUDIÓ A TI
QUE HA QUEDADO SIN TU AYUDA
El milagro se produce
Una luz brilla en las sombras
Es María que responde
A quien tiene confianza
Es una lección muy clara
La que Marcelino ofrece
No te olvides de María
Que ella nunca te abandona
ACUERDATE VIRGEN MARÍA
QUE NUNCA SE OYÓ DECIR
DE NADIE QUE ACUDIÓ A TI
QUE HA QUEDADO SIN TU AYUDA



Gaur laguntza eskatuko diogu gure Ama onari, maitasun handiagor egin nahiko genukeen eta sarri ateratzen ez zaigun zerbaitegatik.

MARTXOA: Irudikatu dezakezu... berriz hastea?

Aizu! Ez da ezer gertatzen... HUTSETIK HAS ZAITEZKE!

Beti dugu aukera hori, hasten den egun bakoitzarekin, eta bereziki martxoan, Garizuman zehar aurrera egiten jarraitzen dugu eta. Garai honek berriz hastera gonbidatzen gaitu; gelditzera, gure baitan begiratzera, borragoma bat hartu eta astun gertatzen zaigun guztia ezabatzen. Garizuma bihotzerako entrenamendua da, eta hartan zehar aldatzen ikas dezakegu, guztiz ondo atera ez zena ezabatu eta indar handiagoz altxatu. Jainkoak beti ematen digu —eta emango digu— berriz hasteko behar den itxaropena. Zamak askatzeko gauza bazara eta egun bakoitza hobea izan daitekeen konfiantza baduzu... berriz hasi zara jada. ALTXATU!

MARTXOA: Irudikatu dezakezu "BERRIZ HASTE"?

Baliabidea 1:

"Jesusek aldatzera eta berriz hastera gonbidatzen gaitu. Zenbaitetan, gauza batzuk kostatzen zaizkigu. Aurrera egitea eragozten diguten harriak bezalakoak dira, oso arroka gogorak balira bezala... Baina Jesusekin dena lortu daiteke. Irudikatu dezakezu berriz hastea, zintzoago eta alaiago izanik? Saia gaitzen!"

ABESTIA: CONVIÉRTETE. UNAI QUIRÓS

<https://youtu.be/-b5lw4gCiok?si=Mkp553QqiVwhsfK8>

Baliabidea 2:

Orain, Martzelinoren istorio honekin otoitz egitea proposatzen dizuegu. Garizuman gaudela, eta gure bidean arroka edo oztopo asko daude, seguru. Arroka edo oztopo horiek geuk jartzen ditugu batzuetan, gure alferkeriarekin, egoismoarekin... Zer egin zuen Martzelinok arrokararekin? Beharbada, pistak emango dizkigu... Aurrera istorioarekin.



• SAN MARTZELINOREN ISTORIA: ARROKA HAUTSI ZUEN

Martzelino bizigarria zen adoregabeenentzat. Martzelinoren alboan, denek egiten zuten lan, inor ez zen ausartzen egonean egotera, inork ez zion lan bati ezetz esaten, nekeza izanik ere.

Harginekin lan egitera joan zen egunetako batean, bazen langile mardul bat, ezein oztoporen aurrean ez kikiltzeko itxura zuena. Eta zera esan zion: Martzelino, arroka hori hausteko amore eman dugu. Hain da harri gogorra, ezen alferrik baita denbora gehiago galtzea. Champagnat aitak, ordea, arroka desagerrarazi nahi zuen, hezetasuna zerio-

lako eraikinaren kontra. Eta txantxarekin jarraitu zuen: Baita zera ere, gezurra dirudi! Ez al zara ausarta? Ez da harritzekoa. Kolpeka ari zara, eta zure kolpe horiek nire oinetakoen zola bera ere ez lukete puskatuko. Eta, hori esanda, pikotxa hartu eta egundoko indarrez jo zuen arroka: zatiak zipriztindu zituen norabide guztietan. Hori ikusita, langileek erremintak hartu zituzten eta lanari adoz ekin zioten, hainbestearaino non, hurrengo egunean, arrokarik ez baitzen geratzen.

Zer arroka hautsi nahi duzu aste honetan, Garizuma izanik?

Baliabidea 3:

Otoitza. Otoitz erraza egingo dugu, baina konpromisoa hartuta. Irudikatu dezakezu lortzen dugula? Ekin diezaiozun:

"Jesus, eskerrik asko egun berri honengatik.

Gaur, hobe izaten ikasi nahi dut.

Lagundu iezadazu gurasoei obeditzen,
jostailuak partekatzen,

lagunekin ez borrokatzen

eta barre egiten, nahiz eta kostatu.

Eman iezadazu indarra alferkeriaren eta haserrearen arrokak hausteko.

Hutsetik hasi nahi dut zurekin".

Baliabidea 4:

Dakizun bezala, Maria gurekin dago beti. Nola maite gaituen! Irudikatu dezakezu Berak bezainbesteko maitasunez egin dezakegula dena? Bada, berak maite gaituela esaten digun bezala, gaur guk esango diogu, abemaria kantatuz.

ABESTIA: AVE MARÍA, JUANA. FE KIDS

https://youtu.be/wyz4gCZWJns?si=pQ_zY7BuL-CClHKH

ASTE. Martxoak 8

Baliabidea 1:

Jesusek beti bilatzen gaitu. Agian bakarrik sentitzen gara edo ondo ez dauden gauzak egiten ditugu. Hala ere, beti barkatzen eta besarkatzen gaitu, eta beste batzuk maitatzen irakasten digu. Eta oso argi ikusiko duzue hurrengo bideoan...

ARDI GALDUA. VALIVAN.

<https://youtu.be/XjE4CivGW-E?si=3bT-exzhOfGvt257>

Baliabidea 2:

Besteak maitatzeak ideia bikainak ematen dizkigu! Besteak aintzakotzat hartzen ditugu horrela eta, zenbaitetan, maite ditugula ere frogatu diezaiekegu. Elkarrekin, Jesusek bezala maitatuz, dena alda dezaketen gauza txikiak egin ditzakegu, eta, hala, berriz has gaitezke. Irudikatu dezakezu? Bideoan ikusiko duzu trikuaren lagunek ez dutela inoiz amore ematen eta beti saiatzen ari direla.

FILM LABURRA: TRIKUA

<https://youtu.be/vrj3uVnI18s?si=o2gKXB0xKFvJW8Ju>

Baliabidea 3:

Badakizue Jesusek dena partekatzen zuela bere Aita Jainkoarekin, Gure Aitarekin: plan guztiak, ideia guztiak... Egiten zuen orori buruz hitz egiten zuen Aitarekin. Guk, maitatzeko daukagun desio horrekin, Aitari Jesusek bezala kantatuko diogu... Berriz hasteko eskatuko diogu, denon artean maitasuneko erreinua eratzeke. Irudikatu dezakezu nolakoa izango litzatekeen?

ABESTIA: PADRE NUESTRO. CANTICUENTOS

<https://youtu.be/G5FPKUMINMo?si=KowXNGFJHl8z85Ld>

3. ASTEA. Martxoak 15 / 19an, SAN JOSEF.

Baliabidea 1:

Bai, hala da: batzuetan ez dugu ongia egiten. Barkamena eskatzeak berriz hasteko aukera ematen digu! Hobetzeko aukera, maitatzen ikasteko aukera. Eta guk barkatzen dugunean, gainera, Jesusen irribarre egitea eta denok berriz lagunak izatea eragiten dugu. Ikusi nola gertatzen den hori ikusi eta entzungo dugun ipuinean...

IPUINA: LEHOIA ETA ARRATOIA

<https://youtu.be/D7FOrmtedMk?si=zRDJXmfc-7R46CDy>

Ausartak izaten eta barkamena eskatzen laguntzeko eskatuko diogu Mariari, erratzen dugunean... Horretarako, ABEMARIA esango dugu elkarrekin, edo Ama Ona kantatuko.

Baliabidea 2, San Josef en egunerako (martxoak 19):

Aste honetan, San Josef ospatuko dugu, Jesusen aita. Eta gure aitak zein anaia maristak asko zaintzeko eskatuko diogu, bera baita anaien zaindaria, Champagnaten anaien zaindaria.

SAN JOSEFEN ABESTIA.

https://youtu.be/7n_4DDO9om8?si=vhqwboNXG02WYrkM

Baliabidea 3:

SAN MARTZELINOREN IRAKASPENA: "DENA MAITASUNAGATIK EGITEA"



Martzelinok ez zeukan diru askorik, ezta gauza politak ere. Oso bihotz handia zeukan, hori bai. Eta beti zihoen: "Dena, Jesus eta Mariarekiko maitasunagatik". Horrek esan nahi du ezen, ona den zerbait egiten dugunean (laguntzea, barkatzea, irribarra eskaintzea...), Martzelinok egiten zuena egiten ari garela, hots, maitasuna oparitu.

Baina harentzat garrantzitsuena ez zen handia izatea edo asko edukitzea, baizik eta gauza txikiak maitasun handiz egitea. Maitasun opari bat egin beharko bazenu, zer oparituko zenuke?

IRUDIZKO kutxa hau beteko dugu. Martzelinok bezala, gauza onak egin ditzaket egunero eta, nahiz eta txikia izan, oso bihotz handia eduki dezaket!

Jesus, Maria eta Josef: lagundu iezadazue bihotz alaia, eskuzabala eta maitasunez betea izaten! Amen

Baliabidea 4:

Berehala, Jesusi Aste Santuan lagunduko diogu, hain garrantzitsua den aste horretan. Zein maitasun handia! Berak bizitza ematen du gure alde. Bideoan ikusiko dugu.

ASTE SANTUA HAURRENTZAT

https://youtu.be/6hu9-tNS_tI?si=5BGdA--6_ALW5IEk

4. ASTEA. Martxoak 22, ASTE SANTUA.

Baliabidea 1:

Aste berezi honetan, gure Amaren alboan egon nahi dugu. Oraindik ez dakigu oso ondo maitatzen, baina, haren seme-alabak garen aldetik, bihotzetik kantatzen diogu.

ABESTIA: JUNTO A TI, MARÍA

https://youtu.be/CZNWAWall-o?si=gBRRYHpi_LY6rupy

Baliabidea 2:

Opari bat da gure adiskideekin jolasak, barreak, lanak, arazoak eta beste hainbeste gauza partekatzea. Irudikatu dezakezu dena parteka dezakezun lagun bat? Bai... Jesus. Aste Santu honetan, nola maite gaituen gogoratuko dugu.

ABESTIA: YO TENGO UN AMIGO QUE ME AMA

<https://youtu.be/bLLsgljrcRs?si=zAAT69IOLVMNAZN5>

5. ASTEA. Martxoak 29. PAZKOKO LEHEN ASTEA.**Baliabidea 1:**

Jesus bizirik dago! Berpiztu da! Pazko zoriontsuak! Bizitzak ematen duen maitasun handi horrekin, Jesus berpiztu da. Dena berria da, maitasunaren indarragatik! Eta dena bizitzaz betetzen da. Hemen ikus dezakegu... Nolako poza!!!

ABESTIA: VIVE. UNAI QUIRÓS

<https://youtu.be/tlER5j4wDx8?si=m6OzV5mYDJAg43hg>

Baliabidea 2:

Gure inguruan, dena bizitzen hasten da berriro. Udaberria ere heldu dela jabetu zara?

ABESTIA: LA PRIMAVERA LLEGÓ.

<https://youtu.be/b5LFUmIPwjQ?si=DvGFumEZTqHBYExJ>

Opari horiekin guztiekin... Ezinezkoa da Jainkoari ez ematea eskerrak guztiagatik! Bihotzetik ateratzen zaigu. Denok batera, eskerrak emango dizkiogu Jainkoari, bakoitzak nahi duenagatik.

Baliabidea 3:

Jainkoari eskerrak emateko aste bat da hau, Jesusen Piztueragatik. Eta beste gauza askorenagatik ere eskerrak emateko aprobetxatuko dugu.

Mila esker, baita ere, gu egiteagatik, bihotz handi batekin eta maitatzeko darabilgun gorputz polit batekin! Irudikatu dezakezu nola maita daitekeen eskuekin? Beste modurik bururatzen zaizu?

Eskerrik asko, Jauna, nire eskuengatik. Modu berezian egingo dugu otoitz, abesti batekin...

ABESTIA: TE DAMOS LAS GRACIAS, SEÑOR, POR LAS MANOS

https://youtu.be/9UL_OuE9HSo?si=BhqCNdsP9jNnpOer

APIRILA: Irudikatu dezaitez... dena konektatuta dagoela?

Apirilean, udaberria ospatzen dugu, natura lorez, kolorez eta bizitzaz blai esnatzen den unea. Era berean gogoratu behar dugu denon etxeak, Lurrak, zaintzea behar duela. Landa-
re oro, animalia oro, pertsona oro... Denok gara familia handi honen partaide. Ura, airea eta lurzorua babesten ditugunean, nork bere burua ere zaintzen dugu. Zeren dena bat baita, eta keinu txikiena ere garrantzitsua da: argi bat itzaltzea, hazi bat landatzea, zaborra ez botatzea... Halaxe eraikiko dugu elkarrekin mundu alaiagoa, osasuntsuagoa eta bizitzaz bete!

1. ASTEA, apirilak 5:

"Pazkoan, dena berpizten da. Baita gu ere!"

"**Pazkoa** ospatzen jarraituko dugu: oso aste berezia da kristauontzat. Poz garaia da: udaberria esnatzen den bezala, Jesusek ere bizitza berria oparitzen digu. Argiz eta itxaropenez betetzen da dena, eta gure bihotzean sortu daitezkeen gauzez".

Baliabidea 1:

DINAMIKA: "Pozaren bidea"

Materialaak:

- Oinatzak inprimatuta (kolore alaiak)
- Zinta itsasgarria
- Pozezko keinuak dituzten txartelak (besarkatzea, partekatzea, laguntzea, irribarre egi-
tea...)

Garapena:

1. Oinatzekin egindako "bide" labur bat jarriko dugu lurzoruan.
2. Hau bakoitza oinatzetan aurrera ibiliko da, eta, amaieran, pozezko keinu bat duen txartel bat hartuko du.
3. Irakasleak azalpena emango du:
"Pazkoan, Jesus bizirik dagoela ospatzen dugu. Eta zerbait bizirik dagoenean, pozgarria da! Egiten dugun keinu on guztia besteei poza uzten dien oinatz bat da".
4. Haur bakoitzak bere keinua egingo du taldearentzat.
5. Horma irudi bat egingo dugu oinatzekin, izenburu honekin: "Bizitza berriaren oinatzak".

**Mezua: "Egiten dugun urrats on bakoitzak alaiago egiten du mundua, Jesusek lagunak alai-
tasunez bete zituen bezala".**

Baliabidea 2:

"Pazkoko eguzkia"

Materialaak:

- Kartulina horia
- Guraizeak
- Errotuladoreak
- Itsasgarria
- Kartulinazko edo EVA gomazko zerrendak

Garapena:

1. Haur bakoitzak eguzki bat egingo du (zirkulua, eta izpiak inguruan).
2. Izpi bakoitzean, "bizitza ematen duten gauzak" idatzi edo marraztuko ditugu: landareak zaintzea, elkarrekin jolastea, barkatzea, laguntzea, eskerrak ematea, etab.

3. Irakasleak hau aipatuko du:

"Eguzkiak gogorarazten digu Jesusen argiak dirdira egiten jarraitzen duela Pazko ostean ere. Gu eguzki izpiak bezalakoak izan gaitezke, gauza politak egiten ditugunean".

Azken produktua: Ikasgelako txoko bat, Pazkoko eguzkiekin.

Baliabidea 3:

"Dantzatu bizitza berria"

Materialaak:

- Musika alaia: <https://youtu.be/y6eqMtZVf2k?si=Guw2vqRMc3WizWCI>
- Zapi bat haur bakoitzarentzat

Garapena:

1. Musika alaia ipiniko dugu, "esnatzen den bizitzaren ideia" osatzeko.
2. Haur bakoitzak zapia mugituz egingo du dantza:
 - una mariposa,
 - tximeleta,
 - hazten den kimu bat,
 - zabaltzen den lore bat
 - edo hegan egiten hasi den txoritxo bat balitz bezala.
3. Musika gelditu eta irakasleak esaldi laburrak esango ditu:
 - "Bizitza berriz hasten da".
 - "Jesusek pozez betetzen gaitu".
 - "Hazten diren kimutxoak gara".
4. Amaiera: "bizitza zirkulu" handi bat egingo dugu denok, zapiak gorantz altxaturik.

Amaierako mezua:

"Udaberriak eta Pazkoak bizitza dakarten bezala, gu ere pozean eta maitasunean haz gaitezke".

2. ASTEA, apirilak 12

"Udaberriak bizitza berria oparitzen digu naturan, eta Piztueraren Pazkoak, bere aldetik, Jesusek dakarkigun bizitza berria ospatzen du kristauontzat. Argiak iluntasuna garaitzen du, itxaropena berriz sortzen da, eta haren maitasunak berrituriko mundu baten promesa gailentzen da".

Baliabidea 1 (otoitzaren denboraz harago doan saioa da, baina merezi du):

DINAMIKA: "Bizitza berriaren lorategi sekretua"

Materialaak:

- Koloretako kartulinak (berdeak, marroiak, urdinak)
- Markatzaileak edo margoak
- Barra motako itsasgarria
- Guraizeak
- Haziak (dilistak)
- Plastikozko ontzi txikiak edo jogurten ontziak
- Kotoia
- Ura
- Hautazkoa: loreen edota tximeleten pegatinak

Garapena:**1. Hasierako solasaldia (5 min):**

Haurrentzako galderak: "Begiratu inguruan... Zer ikusten dugu udaberrian? (Loreak, zuhaitzak, txoriak...). Dena esnatu eta polit jartzen da!

Badakizue zer? Aspaldian, Jesus hil zenean, lagunak oso triste zeuden. Baina, hirugarren egunean, ezin sinetsizko zerbait gertatu zen: Jesus piztu zen! Bizitzara itzuli zen, udaberri berria balitz bezala, eta poz eta itxaropen handiak ekarri zizkigun, lore berriek bezala. Oso opari polita da, baietz?".

2. Lorategi sekretua sortzea (15-20 min):

- Eman haur bakoitzari kartulina berde eta marroiaren zati bana. Eskatu hosto, lore edo ta muinoen formak mozteko (edo lagundu mozten), lorategi gisako paisaiatxo bat sortzeko. Piezak itsats ditzakete beren "lorategia" osatzeko.
- Lorategiak koloreekin edo pegatinekin apaindu ditzakete. Eguzkia, tximeletak, loreak... marraztu ditzakete.
- Bitartean, errepikatu mezu hau: "Begira, gure lorategia egiten ari gara. Itsasten dugun gauzatxo bakoitza bizitzaren opari bat bezalakoa da. Jesusek, piztu zenean, oparirik handiena eman zigun: bizitza berri bat beti dagoelako itxaropena, udaberriarekin gertatzen den bezala!".

3. "Bizitza berria" landatzea (10 min):

- Eman ontzi bat, kotoi pixka bat eta hazi batzuk haur bakoitzari.
- "Orain, geure 'bizitza berria' landatuko dugu. Kotoia ontzian jarri, gainean hazitxo batzuk ipini eta ur pixka bat botako dugu. Tentu handiz! Nahiz eta haziak txikiak diren, oso bizitza handia daukate barruan, irteteko zain, Jesusek ekarri zigun bizitza bezalakoa. Zaindu egingo ditugu, eta nola hozitzen diren ikusiko dugu".
- Haur bakoitzak etxera eramango ditu bere lorategia eta haziak dituen ontzia, hura zaindu eta nola hazten den ikusteko.

Mezua "Haziak hazi eta udaberrian loreak ateratzen diren modu berean, Jesusek erakutsi zigun beti dagoela bizitza berria eta itxaropen handia. Bera piztu zen egundoko poza emateko guri!".

Baliabidea 2:

"Bideo honek oroitarazten digu Jesusek heriotza garaitu duela eta tristura poz bihurtzen duen itxaropena oparitzen digula: Jesusen Piztuerako bizitza berri, argi eta guztiontzako konfiantzaren bidea irekitzen du".

Bideoa "Él ha resucitado".

<https://youtu.be/hDAdKqkSp-o?si=sun1Ek92Flealg4x>

Baliabidea 3:**Otoitza.**

Jesus, berri egiten dituzu gauza guztiak. Bete gure bihotza pozez, argiz eta bizitzaz, udaberrian bezala. Lagundu iezaguzu egunero maitasunean hazten. Amen".

Otoitz labur horrekin, **Piztuera udaberriarekin** eta "bizitza berriaren" ideiarekin lotu nahi dugu. Haurrek naturan ikusten dutena eta fedean bizitzen dutena lotzeko aukera ematen du, eta, halaber, **hazteko** eta **bihotza berritzeko** ideia indartzen du. Hori bat dator lorategiaren edo hazien dinamikarekin.

Baliabidea 4:

Abestia: *Vivo está Jesús.*

<https://youtu.be/hQvq8kqPZC0?si=6uukU9XLZKCwGwBh>

Abestiaren ideia nagusia

Abestiak transmititzen du Jesus bizirik dagoela, bidean laguntzen duela eta poza ematen duela; ez da gurutzean gelditzen, bizitza berria ematen du. Pazkoko mezu nagusia indartzen du: *argiak iluntasuna garaitzen du.*

3. ASTEA, apirilak 19.

Baliabidea 1:

"Udaberrian, Lurra esnatzen da eta zaintzeko gonbit egiten digu. Jainkoak sortutako guztia maitatzen eta zaintzen irakatsi zigun Jesusek: landareak, animaliak eta pertsonak. Keinu guztiak garrantzitsuak dira: argia itzali, hazi bat erein, zaborra ez botatzea... Horrela jarraitzen dugu Jesusen eredua, eta bizitzaz eta maitasunez beteriko mundu bat eraikitzen dugu elkarrekin".

Baliabideak:

"Jainkoak oparitu digun bizitzari balioa eman eta, Jesusek irakatsi bezala, alaitasunez zaintzeko adore ematen digun abestia".

Abestia: *Celebra la vida (Axel)*

<https://youtu.be/OehrPR6ja0Q?si=g0iaENPeyqiiddb>

Baliabidea 2:

Musika instrumentala: https://youtu.be/RKJ6hfxercw?si=FsXhNXjHR_jKeigD

IPUINA Argizko hazitxoa

Bazen behin lurrean bizi zen hazitxo bat, lorez beteriko lorategi batetik oso gertu. Haziak haziko zela eta zeru urdina ikusiko zuela amets egiten zuen, baina beldurrez zegoen:

—Eta inork zaintzen ez banau? —pentsatzen zuen.

Egun batean, Luken izeneko haur bat iritsi zen. Lukenek eskolan entzun zuen Jesusek irakasten digula Jainkoak sortutako guztia zaintzen: landareak, animaliak eta pertsonak. Laguntzea erabaki zuen, beraz.

—Kaixo, hazitxo! —esan zuen Lukenek—. Ura eta maitasun handia emango dizkizut.

Lukenek argiak itzaltzen zituen behar ez zituenean, lorategiko zaborra jasotzen zuen eta bisita egiten zion haziari egunero. Pixkanaka, hazia hazten hasi zen. Aurrena, zurtoina atera zitzaion; gero, hosto berde batzuk; eta azkenean... Lore hori eder bat!

Loreak irribarre egin eta esan zuen:

—Eskerrik asko, Luken. Zaindu ninduzunez gero, orain poza eta bizitza eman ditzaket.

Lukenek ere irribarre egin zuen.

—Jesusek irakasten digu keinu guztiak garrantzitsuak direla. Lurra zaintzen badugu, bizitza zaintzen dugu.

Eta, orduz geroztik, Lukenek keinu txikiak egiten jarraitu zuen: hazi gehiago ereitea, ura aurrezte eta lagunei kreaioa zaintzen erakustea. Elkarrekin mundu alaiagoa eta maitasunez betea egin zezaketela bazekielako.

Gogoeta

Jesusek irakasten digu Jainkoak sortutako guztia zaintzen: landareak, animaliak eta pertsonak. Gauza txikiak egiten ditugunean —argia itzali, hazi bat erein...—, mundua politagoa izan eta bizitzaz beteago egon dadin laguntzen dugu. Keinu guztiak garrantzitsuak dira, eta, elkarrekin, gu guztion etxea zaindu dezakegu: Lurra.

Zer egin zuen Lukenek hazitxoari laguntzeko? Zergatik da garrantzitsua Lurra zaintzea? Zer gauza txiki egin ditzakezu zuk, Jainkoak sortutakoa zaintzeko?

Baliabidea 3:

Lo dagoen basoa

Haurrak poliki mugituko dira espazioan zehar, neguaren ostean lo dagoen baso bat antzeztuz. Makurtuta, geldirik edo hazien gorputz jarreraren egon daitezke.

Une nagusia: "Jesusen deia"

Irakasleak hau esango du:

"Jainkoak sortutako bizitza zaintzera gonbidatzen gaitu Jesusek. Keinu on bakoitzak basoa esnatu eta maitasunez betetzen du".

Haur bakoitzak txartel bat aterako du saskitik.

Keinua irakurtzean (edo entzutean), ekintza batekin adierazi behar du:

- Landare bat ureztatzen duelako plantak egitea
- Argi bat itzaltzen duelako itxura egitea
- Irudizko zaborra jasotzea
- Lurzoruan hazitxo bat ereitea...

Haur batek keinua egiten duen aldiro, basoaren zati bat "esnatzen da":

—Altxatu, besoak luzatu eta zuhaitz, lore edo txori bihurtzen dira.

— Se levantan, estiran los brazos, se convierten en árbol, flor o pájaro.

Azken unea: "Basoa eraikitzea"

Taldean, horma irudi kolektibo bat sortuko dute: **"Zaintzen dugun basoa"**.

Loreak, hostoak, tantak edo eguzkiak itsatsiko dituzte, zer keinu egin dituzten.

Lan egin bitartean, ideia nagusia errepika daiteke:

"Keinu txiki bakoitzak bizitza ematen dio munduari, Lukenek hazitxoa zaindu zuen bezala".

Azken gogoeta

- Zer keinu egin zenuen basoa "esnatzeko"?
- Zer keinu egin dezakezu gaur etxean edo eskolan?
- Zure ustez, nola sentitzen da Jesus kreazioa zaintzen dugunean?

4. ASTEA, apirilak 26

"Jesusek kontatu digu haziak lur onean hazten direla. Haiak bezala, gure maitasun eta zaintza keinuek Lurra eta gure bihotza loratzea eragiten dute. Keinu txiki bakoitza bizitza ematen duen hazi bat bezalakoa da".

Baliabidea 1:

Ereilearen parabola edo ipuina. Hasiko gara...

"Egun batean, Jesusek ipuin bat kontatu zuen: Atera zen behin ereilea hazia ereitera. Batzuk bidean erori ziren eta txoriek jan zituzten. Beste batzuk harrietan erori ziren eta ez ziren

hazi. Beste batzuk arantzen artean erori ziren eta ito egin ziren. Beste batzuk, aldiz, lur onean erori ziren eta sendo eta eder hazi ziren. Jesusek esan zuen: Haziak Jainkoaren Hitza bezalakoak dira. Entzun eta gure bihotzean zaintzen badugu, haziko da eta maitasun fruituak emango ditu". **Adi, bideo batean ikusiko dugu eta...**

•Bideoa: "Ereilearen parabola"

<https://youtu.be/9E5oPlaZOxO?si=7-22VXg2HYnJKJgC>

Baliabidea 2:

Lehengoan, ereilearen parabolarekin egin genuen otoitz. Gaur, aldiz, koloreztatu egingo dugu, eta, gero, marrazkiak partekatu eta otoi labur bat esango dugu.

Irudia



Otoitza

"Jesus, Jauna, eskerrik asko ereilearen parabolarekin irakasteagatik.

Lagundu iezaguzu lur ona izaten, zure maitasuna sendo hazten den lurra.

Erakuts iezaguzu kreazioa zaintzen eta bakea zein poza ereiten egiten dugun guztian.

Gure keinu bakoitza maitasun fruituak ematen dituen hazi bat izan dadila.

Amen".

Baliabidea 3:

"Maitasun keinuak ereiten ditugu"

Bideoa ikusi eta parabola koloreztatu ostean, **gure "maitasun hazitxoak" ereiteko** jarduera bat egingo dugu.

Materialaak:

- Poto bat edo saski handi bat ("Lur ona" izango da).
- Paperezko hazitxoak, koloretakoak (haur bakoitzarentzat bat).
- Errotuladoreak.

Jarduera:

1. Haur bakoitzari paperezko hazi bat emango diogu.
2. Aste honetarako maitasun edo zaintza keinu bat pentsatzeko eskatuko diegu: etxean laguntzea, jostailuak partekatzea, natura zaintzea, lagun bat kontsolatzea...
3. Bakoitzak bere keinua idatziko du hazian.
4. Banaka, beren hazitxoaren ereingo dute Lur onaren saskian.

Itxiera:

Hazi guztiak barruan daudenean, hau esango dugu denok batera:

"Jesus, gure maitasun haziak dira hauek.
Ernaraz itzazu gure bihotzean eta munduan".

MAIATZA: Irudikatu dezakezu... inspirazioa izatea?



Inoiz gertatu zaizu norbait ikusi eta pentsatu izana «hara, haren antza eduki nahi nuke»?

Bada, hori da Maria, gure Ama Ona, haren apaltasunarekin guretzako eredu dena egunez egun. Zerbitzuari emandako bizitza eta Jainkoaren Ama izateari BAI esan izana izan daitezela guztiontzako inspirazio, marista gisa, beti eduki dezagun txerazko hitz bat, irribarre bat, eta kalitate oneko eta entzuteko uneak ingurukoekin. Haren antz pixka bat edukitzeak ongi sentiaraziko gaitu norbere buruarekin, seguru, eta besteei zertxobait hobeak izateko ahalegina eragingo die.

1. ASTEA, maiatzak 3: Irudikatu dezakezu BAI esatea, Mariak bezala?

Baliabidea 1:

IPUINA: *Mariaren baietza* (ipuin laburra, moldatua)

Maria Nazareteko gazte apal bat zen. Egun batean, aingeru batek esan zion Jainkoak bera hautatu zuela Jesusen ama izateko. Mariak ez zuen guztiz ulertzen, baina konfiantza izan zuen, eta hau esan: "Bai, Jainkoak eskatzen didana egin nahi dut". Orduz geroztik, haren baietak mundua aldatu zuen.

Bideoa: *La Anunciación, Valiván*

Baliabidea 2:

DINAMIKA:

Haur bakoitzak paperezko bihotz bat jasoko du. Barruan, zeri esan nahi dion "bai" idatzi edo marraztuko du. Adibidez: etxean laguntzea, partekatzea, entzutea... Ondoren, bihotz guztiak horma irudi handi batean itsatsiko dituzte, BAI erraldoi baten forma eginez.

Abestia: *Mi corazón (canción a la Virgen María)*

Baliabidea 3:

Otoitza:

Maria, pozez esan zenuen zuk baietz.
Irakats iezaguzu bihotzarekin baietz esaten,
laguntzen, partekatzen eta zuk bezala irribarre egiten.
Amen.

Esaldi lasai batekin amaituko dugu:

"Mariak bere gorputz eta bihotz osoarekin esan zuen bai. Guk ere bai".

2. ASTEA, maiatzak 10: Irudikatu dezakezu Mariak bezala zaintzea?

Baliabidea 1:

Lukas 2, 22-40. Jesusen aurkezpena tenpluan

Mariak eta Josefek tenplura eraman zuten Jesus Haurtxoa, Jainkoari aurkeztu eta haren bizitza-gatik eskerrak emateko.

Mariak besoetan zeraman, maitasun handiz.

Tenpluan, Simeon izeneko gizon on bat zegoen, eta Ana izeneko emakume bat.

Jesus ikusi zutenean, oso pozik jarri ziren eta Jainkoari eskerrak eman zizkioten, Haur hori oso berezia zela bazekitelako.

Mariak isiltasunean entzun zuen guztia, eta hitz horiek bihotzean gorde zituen.

Gero, Nazareteko etxera itzuli ziren, eta Jesus maitasunez, zaintzaz eta alaitasunez inguraturuta hazi zen.

Mariak maitasun handiz zaintzen du Jesus, eta Jainkoari eskaintzen dio konfiantzaz. Jesus txikia zenean zaindu zuen bezalaxe zaintzen gaitu gu eta gure alboan dago, gure amaren moduan.

Abesti hau entzungo dugu: *Mis dos mamás*

Baliabidea 2:

DINAMIKA

Begiratu irudia...



Gogoeta egiteko galderak: Nor zaintzen duzu zuk? / Nola sentitzen zara zaintzen zaituzte-nean?

Baliabidea 3:

Otoitza:

Maria, irakatsiezaguzu samurtasunez zaintzen
eta laguntzen duten eskuak,
txeraz begiratzen duten begiak
eta zurea bezalako bihotz handia edukitzen.
Amen.

3. ASTEA, maiatzak 17: Irudikatu dezakezu Mariak bezala maitatzea?

Baliabidea 1:

Zenbaitetan, norbait ikusi eta hau pentsatzen dugu: "Haren antza eduki nahi nuke". Guretzat, pertsona hori Maria da. Zergatik?

Gogoeta

Eserarazi haurrak biribilean, Mariaren iruditik gertu. Erakutsi lore bat edo lore baten marrazkia. Eta galdetu: "Nori gustatzen zaio loreak jasotzea? Mariari asko gustatzen zaizkio haurren loreak".

Oparia

Esan hurrei lore bat hautatzeko. Eskatu haur bakoitzari bere loreari heltzeko: benetako lorea bada, usaindu dezala; marrazkia bada, bere kolore gogokoena adieraz dezala.

Ahapeka, eskatu zerbait polita esateko Mariari, beren baitan. Gero, ikasgelan daukagun Mariaren irudi bati oparituko dizkiote loreak.

Baliabidea 2:

Keinua

"Mariak Jesus zaindu zuen txikia zenean. Besarkatu, babestu eta asko maite zuen.

Gaur, Mariak gu ere besarkatzen gaituela irudikatuko dugu".

Biribilean jarriko dira guztiak. Hezitzaileak keinu motelekin gidatuko ditu:

Eskuak zabalik → "Mariak jasotzen gaitu"

Eskuak bihotzean → "Mariak maite gaitu"

Besoak gurutzatuta, besarkatzeko → "Mariak zaintzen gaitu"

Besarkadaren keinua egin bitartean, hau errepikatuko dute: Maria, zaindu gaitzazu eta lagundu iezaguzu zure antza edukitzen.

Baliabidea 3:

Otoitza:

Maria, Ama ona, asko maite zaitugu. Eskerrik asko gu zaintzeagatik eta Jesusen Ama izateagatik. Zaindu nire familia eta nire lagunak.

Amen.

4. ASTEA, maiatzak 23: Irudikatu dezakezu Mariaren antza edukitzea?

Baliabidea 1. baliabidea (otoitzaren tarte baina gehiago irauten du, baina baliteke merezi izatea, edo proposamenaren barruan sar daiteke):

IPUINA *Niko eta haren desioa*

Loreen eskolan **Niko** zeritzon haur bat bizi zen. Nikok asko atsegin zuen jolas egitea. Hala ere, batzuetan, hau pentsatzen zuen beste haur batzuk ikustean: "Hara, zeinen atsegina den haien laguna izatea! Haiek bezalakoa izan nahi nuke, irribarre eginarazten baitiete guztiei".

Niko pixka bat bizkor ibiltzen zen, eta, zenbaitetan, eskerrak ematea edo jostailuak jasotzen laguntzea ahazten zitzaion.

Egun batean, irakasleak oso emakume berezi baten irudia erakutsi zien. **Maria** zen, eta **Ama On** esaten zioten, maitasunez.

Irakasleak Mariaren bi sekretu kontatu zizkien:

- **Lehen sekretua (zerbitzua):** Maria ez zen koroa zeraman erregina bat. Beti **laguntzeko** prest zegoen lagun bat zen. Norbaitek zerbait behar bazuen, hau esaten zuen: "Bai, kontatu nirekin!". Pozarren laguntzen zuen.
- **Bigarren sekretua (irribarrea):** Mariak oso bihotz **apala** zeukan (txikitxo, harro ibili gabe), eta denei oparitzen zien beti **irribarre** bat eta **maitasun hitz** bat.

Nikok, Mariari begira, hau pentsatu zuen indar handiz: "Hara! Bera da eredua! Mariaren antz pixka bat eduki nahi dut nik".

Nikok imitatzeke jolasarekin proba egitea erabaki zuen:

Peio erori zenean: Nikok ez zuen barre egin. Mariaren sekretua gogoratu zuen. Eta hauxe esan zion: "**Ongi zaude, Peio? Altxatzen lagunduko dizut!**". (Hori da laguntza eta zerbitzua).

- **Sofia triste zegoenean:** Niko poliki hurbildu zen, ondoan eseri zitzaion eta hau esan zion, ahots eztiz: "**Konta iezaazu, Sofia. Entzuten dizut. Gero elkarrekin jolastuko gara?**". (Hori maitasun hitza eta entzutea da).

Hasieran, Nikok lotsa pixka bat sentitzen zuen. Dena den, lagunaren aurpegiak ikusten zitue-nean, primeran sentitzen zen!

Peiok hauxe esan zion: "Eskerrik asko, Niko. Oso atsegina zara!". Sofiak besarkada handia eman zion.

Nikok sekretu handia deskubritu zuen: **Mariaren antz apur bat daukazunean**, atsegina iza-nez, laguntzeari "bai" esanez eta irribarrerik onena oparituz...

1. **Oso zoriontsu sentitzen zara** barrutik.

2. Besteak maitatuak eta pozik sentitzea **eragiten duzu**.

Y así, Nico se dio cuenta de que ser como María, nuestra Buena Madre, no es difícil. Es solo poner un poquito más de amor y cariño en lo que hacemos cada día.

Baliabidea 2:

Gogoeta:

Hitz egin dezagun... Zenbat pertsonari oparituko diezu irribarre handi bat gaur, trukean ezer espero gabe? Ona den zerbait egiten dugunean, nola sentitzen da zure bihotza barrutik?

Baliabidea 3:

Keinua:

Konpromisoaren postontzia

Aurretik istorioari buruz hausnartu eta gero, haur bakoitzak pentsatuko du zer gauza on imitatzea aholkatzen duten, ingurukoekin keinu onak izateko. Ozenki komentatuko dugu. Ondoren, konpromisoaren postontzia sortuko dugula azalduko diegu haurrei. Hartan, as-tean zehar bete behar ditugun promesak sartuko ditugu:

1. Postontzia sortzea: kutxa birziklatu bat eta tenperak erabilita, ikasle guztiek konpromi-soaren postontzia eraikiko dute elkarrekin.

2. Postontziaren arauak: Postontziaren arauak denon artean idatziko dituzte.

Paper zatitxoak banatuko ditugu, keinu onak idatzi edo marraztu ditzaten, gero betetzeko konpromisoa hartzeko. Adibideak: besarkada gehiago ematea, "maite zaitut" esatea, irri-barreak oparitzea, ikaskideei laguntzea... Bukatutakoan, postontzian sartuko dute. Astean zehar, egunero, paper zati bat aterako dute ausaz, irakurri eta betetzeko.

EKAINA: Irudikatu dezakezu... hau hasiera besterik ez dela? (Marista, biolelak, Martzelino)



Zu zara gaur Champagnat. Eta ez da etorkizuneko perpaus bat. Zure keinuekin, konpromisoarekin eta bizitzarekin, Champagnaten espirituak bizirik jarraitzea eragiten duzu. Marista izatearen onena iristeko dago oraindik, eta zurekin hasi da. Ez geratu iraganean errotuta, baizik eta gaur eraiki dezakezun horretan. Zure historia marista osoa beste batzuen artean hasten den bizitza marista bihur daiteke. Zure historia marista ez da zurekin amaitzen. Aitzitik, zure baitan dago beste batzuegan bizitza marista ereiteko aukera.

1. ASTEA, maiatzak 31-ekainak 1

"Martzelino Champagnatek, eraikitzaile handiak bezalakoak izaten irakatsi zigun. Eskuekin, irribarrearekin eta bihotzarekin, alaitasun maristaren haziak jartzen dituzu gaur, mundu polit bat hazteko.

Baliabidea 1:

Gogoeta: Nor zen Martzelino Champagnat?

"Aspaldi-aspaldian, **Martzelino** izeneko oso lagun berezi bat bizi zen.

Martzelino **oso bihotz handiko** gizon bat zen, superheroiena bezain bihotz handikoa. Ikusi zuen haur ugari ezin zirela eskolara joan, ezta gauza politak ikasi ere. Orduan, ideia zoragarri bat otu zitzaion: **eskolak eraikitzea** erabaki zuen, eta beste lagun batzuk bilatzea —anaia marista esaten diegunak—, haur guztiei **irakurtzen, idazten eta, garrantzitsuena, elkar maitatzen eta elkarri laguntzen** irakasteko, familia handi bat balitz bezala.

Horregatik, Martzelino Champagnat **maitasunaren eta alaitasunaren ereile** handia izan zen. Nahiz eta txikiak izan, ontasunez oso gauza handiak egin ditzakegula irakatsi zigun. Partekatzen, lagun bati laguntzen edo irribarre egiten duzun aldiro, Martzelinok egiten zuen bera egiten ari zara: **mundu zoriontsuagoa eraikitzen ari zara!"**.

DINAMIKA: "Adiskidetasunaren aztarna"

- Jarri kartulina handia lurrean edo horma baxu batean.
- Txandaka, gonbidatu haurrak **eskua margotzera**, hatzekin erabiltzeko pinturarekin. Edo, besterik gabe, **eskuaren ingurua** beste kolore batekin marraztu dezakete.
- Gakoa da hurrek beren eskutxoak jartzea besteen **ondo-ondoan edo gainean**, koloretako kate luze bat eratzeko.
- Esku guztiak jarrita daudenean, hau galdetuko diegu: Zer eraiki dugu? Kate bat, lagunez eginiko horma bat! **Martzelino Champagnatek** ez zuen bakarrik eraiki: denen laguntza behar izan zuen. Eta guk, eskutxoak batera jarrita, oso indartsua den zerbait eraiki dugu, gure **adiskidetasuna**, eta oso polita den zerbait ere bai, gure **eskola"**.

Bideoa

https://youtu.be/GXWKjnjf54k?si=saa9Z3ip4AtGzx_-

Baliabidea 2:

IPIUNA: Martzelino eta argiaren hazia

Bazen behin, mendiz inguratutako herrixka batean, **Martzelino** izeneko haur bat. Ez zen altuena, ez zen indartsuena, ezta berritsuena ere... Oso berezia zen zerbait zeukan, ordea:

haren bihotzak indar handiz distiratzten zuen, barruan linternatxoa baleuka bezala.

Egun batean, basoan zehar zebilela, Martzelinok **oso hazi txiki bat** aurkitu zuen, hain txikia ezen ia ez baitzen ikusten.

—Zertarako balioko du hazi honek? —pentsatu zuen.

Une horretan, haizetik zetorren ahots leun bat aditu zuen:

—Hazi hori argia da. Ereiten baldin baduzu, besteei laguntzeko haziko da.

Martzelinok, jakin-minez betea eta irmo, leku on bat bilatu eta erein egin zuen. Baina... ez zen ezer gertatu!

Zurtoinik ez, hostotxorik ez.

Gau horretan, Martzelino triste itzuli zen.

—Agian hazia txikiegia zen —hasperen eginez.

Inguruan begiratzean, ordea, zerbait ikusi eta ideia bat otu zitzaion: **herriko haur asko ezin ziren eskolara joan**. Batzuek ez zekiten irakurtzen. Beste batzuek ez zeukaten inor mundua zer zen azaltzeko.

Martzelinoren bihotzak indar handiagoz egin zuen dirdira—

—Badakit nola lortu hazia haztea! —egin zuen oihi.

Eta laguntzen hasi zen: letrak irakatsi, istorioak kontatu, adoretu eta irribarre egiten zuen.

Eta horrela jokatzeko zuen aldiro... magikoa zen zerbait gertatzen zen!

Lur azpian, hazia hazten hasi zen.

Egunak joan egunak etorri, **hark bezala lagundu nahi zuten beste pertsona batzuk** agertu ziren. **Anaia marista** esan zieten, beren lanarekin argia erein nahi zuten anaiaak.

Elkarrekin, eskolak eraiki zituzten lehen ezer ez zegoen tokietan.

Elkarrekin, irakurtzen eta amets egiten irakatsi zieten mila haurri.

Elkarrekin, mundua leku alaiago bihurtu zuten, lorez beteriko lorategi bat bezala.

Eta Martzelinok aurkitu zuen hazia...

argizko zuhaitz erraldoi bat izan zen azkenean, eta haren adarrek hazten jarraitzen dute oraindik, haur batek partekatzen, laguntzen edo irribarre egiten duen bakoitzean.

Martzelinok oso garrantzitsua den zerbait irakatsi zigulako:

Nahiz eta txikia zaren, oso gauza handiak egin ditzakezu maitasunarekin egiten badituzu, berak bezala.

Gogoeta egiteko galderak

1. Zer zeukan berezirik Martzelinoren bihotzak?
2. Zure iritziz, zergatik ez zen hazia hazten hasieran?
3. Zer egiten zuen Martzelinok besteei laguntzeko?
4. Zer egin dezakezu zuk, argiaren hazia zure ikasgelan edo familian hazteko?
5. Zuretzat, zer da "marista izatea"?

Baliabidea 3:


DINAMIKA: "Detektibeak"

Hemen, helburua identifikazio emozionala eta jakin-mina dira.

Koloreztatzeko irudi bat emango diegu, eta, bitartean, galdera hauek egingo dizkiegu ozenki, elkarriketa eragiteko:

1. Lagunaren aurpegia: "Zer ikusten duzue Martzelinoren aurpegian? Irribarretsu ala haserre dago? Haurrak atsegin dituela iruditzen zaizue?"
2. Arropa berezia: "Ikusi haren arropa. Ez daramatza galtza bakeroak, ezta futboleko elastikorik ere. Oraingo ala aspaldiko arropa da? Zer ekartzen dizue gogora?"
3. Loreen sekretua: (Hiru bioletak seinalatuz, marrazkian agertzen baldin badira) "Hiru loretxo daude harengandik gertu ezkutaturik. Aurkituko dituzue? Bioletak dira, eta Martzelino oso soila eta apala zela esan nahi dute".

4. Martzelino eta gu: "Gaur Martzelino gure gelara sartuko balitz, zer esango liguke, zuen ustez? Zertan jolastera gonbidatuko zenukete?"



2. ASTEA, ekainak 7

"Martzelino Champagnatek irakatsi zigun ezen, anaia maristen eta irakasleen maitasunari esker, gure eskola familia bat dela eta pozez zein laguntasunez beteriko bihotzen ametsak bizirik jarraitzen duela bertan".

Baliabidea 1:

Jarduera: "Martzelinoren bost izarrak"

Martzelinok eskatzen dizkigun bost ekintza aurkeztuko ditugu, argiz beteriko bihotza eduki dezagun. Bost izar marraztu ditzakezue kartulina handietan, eta horietako bat aurkeztu astegun bakoitzean. Aldi berean dagokion keinua erakuts dezakezue, gogoratze eta ikasgelan praktikatzeko.

1. Partekatzea eta laguntzea:

- a. *Esanahia:* Besoak jartzea lagun bat besarkatuko bagenu bezala.
- b. *Egiten duguna:* **Jostailuak partekatzea eta behar duenari laguntzea gelan.** (Laguntza-
ren eta elkartasunaren espiritua).

2. Entzutea eta errespetatzea:

- a. *Esanahia:* Eskua belarrian jartzea eta, gero, bihotzean.
- b. *Egiten duguna:* **Irakasleei eta ikaskideei entzutea, eta enbarazu ez egitea.** (Presentzia-
ren eta elkartasunaren espiritua).

3. Egia esatea eta barkamena eskatzea:

- a. *Esanahia:* Eskua ahoan jartzea eta, gero, eskuak elkartzea otoi egin edo eskatzeko.
- b. *Egiten duguna:* **Egia esatea beti, eta barkamena eskatzea erratzen badugu.** (Soiltza-
sunaren eta apaltasunaren espiritua).

4. Mariaren laguna naiz:

- a. *Esanahia:* Eskuak elkarrekin jartzea, otoi egingo bagenu bezala.
- b. *Egiten duguna:* **Otoi egitea eta eskerrak ematea gure Ama Onari, Andre Mariari.** (Andre
Mariaren espiritua).

5. Alaitasunez ikastea:

- a. *Esanahia:* Besoak energia handiz altxatzea.
- b. *Egiten duguna:* **Eskolara pozik etortzea, poz handiz ikasteko eta jolasteko.** (Lanaren
eta pozaren espiritua).

Abestia

<https://youtu.be/rtImmjQb6Ek?si=VmCoBIOUD7bivqdw>

Baliabidea 2:**Martzelinoren bihotzeko horma irudia****Baliabidearen deskribapena:**

Astean zehar, bihotz formako horma irudi handi bat egingo dugu denon artean. Ekintza onez beteta dagoen Martzelino Champagnaten bihotza irudikatuko du.

Nola egiten da:

- Bihotz erraldoi bat marraztu behar da paper zati jarraitu batean edo kartulina handi batean.
- Haur bakoitzak paperezko bihotz, izar edo oinatz bat jasoko du.
- Egunero, bost izarretako bat aurkeztu eta gero, hurrek marraztu edo kolore bat hauta-
tuko dute, figura horma irudian itsasteko, landu den ekintza gogoratzuz.
- Irakasleak ekintza esango du, eta hurrek oinatza koloreztatu, itsatsi edo pinturarekin
estapatuko dute.
- Esaldi labur-laburrekin indartuko da lan hori:
- Ekintza zehatz bat marraztu dezakete (partekatu, entzun, barkamena eskatu...).

- Hautazkoa: hitz erraz bat idaztea; esate baterako, laguntzea, entzutea, barkamena, Maria, poza...

Helburua:

Guztion artean Martzelinoren bihotza argiz betetzen dugula irudikatzea, haren balioak egunero biziz.

Baliabidea 3:

Bost izarren otoitza edo keinua

Baliabidearen deskribapena:

Gorputz bidezko otoiz labur bat, keinuekin. Goizero edo eguna amaitzean esan daiteke, Martzelinoren bost izarrek gogora ekarrita.

Nola egiten da?

Irakasleak motel gidatuko du otoitza, eta hurrek ikasitako keinuak egingo dituzte aldi berean:

- **Partekatzea eta laguntzea**

(besoak zabalik)

"Jesus, lagundu iezaguzu partekatzen eta besteei laguntzen".

- **Entzutea eta errespetatzea**

(eskua belarrian eta bihotzean)

"Irakats iezaguzu gure lagunei entzuten eta haiek errespetatzen".

- **Egia esatea eta barkamena eskatzea**

(eskua ahoan eta eskuak elkartuta)

"Eman iezaguzu bihotz zintzoa eta apala".

- **Mariaren laguna naiz**

(eskuak otoi egiteko moduan)

"Maria, zaindu gaitzazu eta egon gure alboan egunero".

- **Alaitasunez ikastea**

(besoak gorantz)

"Eskolara zoriontsu etorri nahi dugu, Martzelino bezala".

Se puede cerrar con:

"Gracias, Marcelino, por enseñarnos a amar. Amén."

3. ASTEA, ekainak 14

"Ikasturte amaierara heldu gara. Gogoratu dezagun nolako argiarekin argiztatu dituzten gure urratsak **Jainkoak, gure Ama On Mariak** eta **San Martzelinok**. Orain barneratu behar da nola modelatu duen **irakasle eta ikaskideekiko** maitasun partekatuak bihotz marista bat gutako bakoitzaren baitan. Nahiz eta eskolako ateak itxi, familiaren espirituak iraungo du, eta soiltasuna eta elkarrekiko laguntza etxean bizitzera gonbidatzen gaitu".

Baliabidea 1:

Otoitza

Jesus, mila esker eskolagatik. Eskerrik asko irakasleengatik, adiskideengatik eta jolastu garren guztiagatik.

Martzelino Champagnat laguna, zu zara gure eredua. Beti laguntzen duen eta denak maite dituen bihotz bat eduki nahi dugu.

Ama Maria, zu zara gure Ama Ona. Zaindu gaitzazu etxean eta oporraldian. Zaindu gure familia marista, elkar berriz ikusten dugun arte.

Amen.

Abestia

<https://youtu.be/CZNWAWall-o?si=A4AvvD53TRIVp-9N>

Baliabidea 2:

Garapena:

- Taldea zirkulua jarriko da.
- Hasteko, irakasleak hau esango du:

"Zer irakatsi dit Martzelino Champagnatek?"

- Jarraian, banaka (edo txanda laburretan), ikasleek ideia bakar batekin erantzungo diote galderari:
 - "laguntzen"
 - "partekatzen"
 - "lagun ona izaten"
 - "zaintzen"
 - "nire familia maitatzen"
- Ez da ezer zuzendu behar, ezta zabaldu ere: proposamen guztiak jasoko dira.
- Irakasleak denontzako esaldi batekin itxiko du:

"Hori guztia eskolatik etxera eta oporraldira eramango dugu".

Baliabidea 3:

Horrela bizi zen Martzelino"

Helburua:

Martzelinoren figura ulertzea egunerokotasuna ardatz hartuta, eta haren keinuak ikasleen bizitzarekin lotzea.

Garapena:

- Irakasleak azalpena emango du:

"Martzelinok keinu errazekin irakasten zituen gauzak, guk egunero egiten dugun bezala".

- **Dramatizazio labur bat** proposatuko da, **prestatu gabe eta materialik gabe**.
- Irakasleak hainbat egoera aipatuko ditu, eta ikasle batzuek laburki antzeztuko
 - Triste dagoen norbaiti laguntzea
 - Ikaskide berri bati harrera egitea
 - Jolas egitea inor kanpoan utzi gabe
 - Entzutea norbait hitz egiten ari denean
- Eszena labur bakoitzaren ostean, irakasleak hau galdetuko dio taldeari:

"Martzelinok hau egingo luke?"

(Taldeak: "Bai").

Itxiera:

"Martzelino ez dago liburuetan soilik. Bizirik dago horrela jokatzeko dugunean etxean, eskolan eta besteekin".